



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko otsailaren 27a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (30. or.).
- Foru Legea, Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840. lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (33. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezinak deklaratzeko dituenak. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).
- Foru Legea, elikagaien hondakinen erabilerari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (36. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko esku-bidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsonei. Osoko Bilkurak onetsia (38. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen baitira erne jarrai dezaten Tabako-produktuak ekoizteari, aurkezteari eta saltzeari buruzko Europako Batzordearen 2001/37/CE Zuzentarauaren aldaketaren bilakaera. Osoko Bilkurak onetsia (41. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ustelkeria-egintza oro arbuiatzen baitu. Osoko Bilkurak onetsia (41. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez diezaien dietarik ordaindu bilkuretara joaten ez diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetako kideei. Osoko Bilkurak onetsia (42. or.).

- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Departamentuak bere gain har dezan Tuterako Reina Sofia Ospitalearen eta Iruñeko ospitaleen arteko garraioaren kostua, eta zerbitzu hori Nafarroa osora hedatzen. Osoko Bilkurak onetsia (43. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egokitu dezan Nafarroako legedia abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate eta segurtasun baldintzak ezartzen dira. Osoko Bilkurak onetsia (43. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erraztasunak eman ditzan “Traperos de Emaús” Fundazioak hondakinak berrerabilerarako prestatzeko proiektua abian jar dezan Berriozarren, eta, horretarako, aurreikustako inbertsioen finantzaketa erraztu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (44. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimen berriak ebaluatu eta, ondoren, proposa ditzan, ekitaldi instituzionalei dagokienez, oro har, eta zehazki, Nafarroaren Eguna dela-eta programaturakoei dagokienez. Osoko Bilkurak onetsia (44. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere gain behar besteko aurrekontu-konpromisoa har dezan, Nafarroako irakaskuntza unibertsitarioko eta ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoei beren eginkizunak garatzeko behar dituzten baliabideak emate aldera. Osoko Bilkurak onetsia (45. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Drogamenpekotasunari buruzko II. Foru Plana. Osasun Batzordeak onetsia (46. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

1. Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak Kontseiluaren 1989ko abenduaren 21eko 89/665/EEE Zuzentarauaren transposizioa egin zuen, Nafarroako foru legeriara ekarriz. Zuzentzaraua hornidura eta obra kontratu publikoen esleipenaren arloko errekurtsu prozedurak aplikatzeko lege, erregelamendu eta administrazio xedapenen koordinazioari buruzkoa da. Arau hori aitzindaria izan zen, kontratazio publikoaren arloan erreklamazio sistema azkarra eta eraginkorra ezarri baitzuen, Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordearen bidez ebaztekoa. Batzorde hori organo independentea da esleipen-botereekiko, eta haren aurrean erreklamazioak aurkez daitezke kontratazio publikoen kontra, edozein izanik ere horien izaera eta zenbatekoa.

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak indarra hartu ondoren, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2007ko abenduaren 11ko 2007/66/EE Zuzentzaraua eman zuten, Kontseiluaren 89/665/EEE eta 92/13/EEE zuzentzarauak aldatu zituena, kontratu publikoen esleipenaren arloko errekurtsu prozeduren eraginkortasuna hobetzeari dagokionez.

Zuzentzarau horren funtsezko helburuak dira kontratuen legez kanpoko esleipen zuzenaren kontra borroka egitea eta bermeak indartzea errekurtsu-prozeduretan.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren iritziz, legez kanpoko esleipen zuzena Batasunaren zuzenbidearen arau-hauste nagusia da kontratazio publikoaren arloan. Ondorio horietarako, 2007/66/EE Zuzentzarauaren iritziz (14. eta 15. oinarriak), legez kanpoko esleipen zuzena da alde zuzenetik Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) lizitazio iragarkia argitaratu gabe egiten den esleipen oro, kasu hauetako bat ez bada:

– 2004/18/EE Zuzentzarauan sartuta ez dauden kontratuak.

– Defentsaren arloko kontratuak, kontratu sekretuak eta segurtasun neurri bereziak dituztenak.

– Erosketa-zentral baten kontratuak beste entitate esleitzaille batentzat.

– Zerbitzu-emakidak.

– Entitate esleitzaille batek beste entitate esleitzaille bati esleitzeko erabiltzen diren kontratuak, lehiarako eskubidearekin bateragarria den legezko edo erregelamenduzko arau baten babesean.

– Zuzentzarauaren II-B Eranskinean jasotako laguntza kontratuak (Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen II-B eranskina).

– Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua bidez esleitutako kontratuak.

– Obra-emakidaren osagarriak diren obrak esleitzea emakida-hartzaileari berari, obraren hasierako zenbatekoaren erdia baino gutxiago egiten badute betiere.

Nabarmendu beharra dago 2007/66/EE Zuzentzarauan, 15. oinarrian, legez kanpoko esleipen zuzentzat hartzen direla "barne kontratuenak",

Batasuneko zuzenbideak eta jurisprudentziak ezartzen dituzten baldintza zorrotzak bete gabe egiten badira.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak arlo honetan emandako doktrina gehitzeko xedez, aldatu egin da ente instrumentalei egiten zaizkien enkarguen araubidea.

Era berean, zuzentarauaren asmoa da bermeak indartzea errekurtsio prozeduretan, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean kontratazio publikoaren arloko erreklamazio deitzen direnetan, prebentzio neurri batzuk hartuz (esleitzeko erabakia etetea; etenaldian kontratuak egiteko debekua; etendura, esleitzeko erabakiaren kontrako errekurtsioa aurkezten denean), eta errekurtsioen gaineko ardura organo independente bati emanen zaiola ezarri; organo horretako kideak izendatu eta errebotatzeko baldintzak epaileei aplikatzen zaizkien berberak izanen direla ere ezartzen du zuzentarauak, "horiek izendatzen dituen agintariari, agintaldiaren iraupenari eta kargutik kentzeari" dagokienez (2007/66/EE Zuzentarauaren 2. artikulua 9. idatz-zatiaren bigarren lehen zatia).

Hori dela eta, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea aldatu egin behar da, zuzentaru berriak agindutakoaren transposizioa egiteko, eta arauak bere baitan hartzen dituen kontratu guztietara zabaldu behar da egokitzapena, foru lege indardunari oinarria eman dion irizpidearekin koherentea izanik, kontratuaren zenbatekoak ez baitu haren izaera juridikoa aldatzen, eta 2004/18/EE Zuzentarauaren esparru materialean sartutako kontratuak eta sartu gabeko artean ere baitago funtsezko desberdintasunik.

Bestetik, aldaketa honek Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean gardentasuna lortzeko aurreikusten diren bitartekoak indartzea dakarrela kontuan harturik, bidenabar hobetu egingen da kontratuaren aldaketan gaineko arautzea, Europako jurisprudentziak zehaztu dituen betebeharrekin bat. Halatan, exekutatzeko kontratuak izanen dituen balizko aldaketak kontuan hartzen dira haren balio zenbatetsia kalkulatzeko.

Gainera, aprobetxatu da Europar Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2011/7/EB Zuzentarauaren aginduen transposizioa egiteko; zuzentaru horren bidez merkataritza-operazioetan berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak ezarri ziren, eta merkatuari egokiago zitzaizkion ordainketa-epeak ere ezarri ziren, enpresen likidazio problemak arintzearen.

Azkenik, aipatutako zuzentaruaren ondorioz nahitaezkoak diren aldaketa horiekin batera, beste batzuk ere egingen dira araua hobetzeko, aplikazio

urteetan bildutako esperientziak aholkatuta eta manuak ukitutako operadore juridikoei eskatuta.

2. Ente instrumentaltzako mandatuei dagokienez –mandatuok Foru Legearen 8. artikuluan ageri ziren, eta, orain, ente instrumentaltzako enkarguak deitzen dira–, horien ezaugarri mugatzaileen definizio zehatza gehitu da, eta, halaber, jarduketaren publizitatea egitea sustatzen da, gardentasun berme gisa. Horretarako, erreforma honek Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea moldatzen du Europar Batasuneko jurisprudentziak sortutako doktrinara, nagusiki epai hauetan bildutakora: "Teckal", 1999ko azaroaren 18koa; "Arge", 2000ko abenduaren 7koa; "Stadt Halle", 2005eko urtarrilaren 11koa; "Parking Brixen", 2005eko urriaren 13koa; "Coname", 2005eko uztailaren 21koa; "Carbotermo", 2006ko uztailaren 21koa; "Aroux", 2007ko urtarrilaren 18koa; "Tragsa", 2007ko apirilaren 19koa; eta "SEA", 2009ko irailaren 10koa.

Eskatzen den lehendabiziko betebeharra da enkargua jasoko duen entitatea ez dela formalki izanen enkargua egiten duen berbera, baina honek bestearen gainean izanen duen kontrola bere zerbitzuen gainean duenaren parekoa izanen da, halako moduan non enkargua jasotzen duen entitateak ez baitu bere kabuz erabakitzeke ahalmenik izanen. Ondorio horietarako, Europar Batasunaren jurisprudentziarekin bat, bere zerbitzuen gaineko kontrolaren parekoa egiten duela ulertzeko, ezin da onartu enkarguak egiten dituzten entitateen baliabide berekitzat hartzea beren kapitalean entitate horiena ez den partaidetza duten sozietateak.

In house providing (barne kontratua) bat dagoela onartzeko, Europar Batasunaren jurisprudentziak eskatzen duen bigarren baldintza hau da: enkargua jasotzen duen entitateak bere jardunaren zatirik handiena bete behar duela hura kontrolatzen duen entearekin edo duten enteekin, eta halaxe jaso da testu berrian.

Europar Batasunaren jurisprudentziarekin bat, halaber, testu berriak aukera ematen du ente instrumental bat entitate batena baino gehiagorena izan dadin aldi berean, eskatzen diren bi baldintza horiek betetzen baditu betiere.

Amaitzeko, sistema ahalik eta segurtasun juridiko handienaz janzteko, ente instrumentalaren izaeraren deklarazioa eta enkarguak egiteko agindua argitaratzeko beharrezkoa ezarri da; horrela, interesdunek enkargu bat egiteko erabakiaren kontrako erreklamazioak aurkez ditzakete.

3. 2007/66/EE Zuzentaruaren aurreikusten diren legez kanpoko esleipen zuzenen kasuetako bat gerta ez dadin, 97. artikuluan arautu da kontratuak

esleitzeari buruzko iragarkiak, lizitazio iragarkirik izan ez badute, Kontratazioaren Atarian argitaratu beharko direla, hala egiteko bide ematen duten egitatezko kasuak eta zuzenbidezko oinarriak labur adierazita.

Aukera baliatu da, orobat, agindu honetan arautzeko "aldez aurreko borondatezko gardentasuna" (*voluntary ex ante transparency*) duten Europar Batasuneko iragarkiak, eraginkortasun faltak eragin dezakeen segurtasun gabezia juridikoa saihesteko helburua dutenak, 2007/66/EE Zuzentarauaren 26. oinarrian adierazten denaren arabera. Horrela, esleipen-boterearen iritziz, baimenduta baldin badago kontratazio publikoari buruzko araudiarekin bat, kontratu bat zuzenean esleitzea, aurretik Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarki bat argitaratu gabe, eta aldez aurreko borondatezko gardentasuneko iragarki bat argitaratzen badu, bertan adierazirik kontratuaren xedea, kontratua zuzenean esleitzeko justifikazioa eta esleipen-hartzailearen identifikazioa, eta errekurtsio eraginkorra ahalbidetuko duen gutxieneko etenaldia aplikatzen badu, deuseztasun zehapenetik salbuetzirik egonen da, eta hautatutako prozedura baliozkotzat hartuko da ondorio guztietarako.

Ildo berean, legez kontrako zuzeneko esleipena Europar Batasunaren zuzenbidezko arau-hauste nagusietako bat izanik, zehaztu beharra zegoen foru legeak agindutakoa bete gabe egindako esleipen zuzena zuzenbide osoz deuseza dela deklaratu behar dela, eta deuseztasun zehapena ere gehitu da, etendura epean edo erreklamazio bat izapidetzen ari dela kontratuak formalizatzeari.

Azkenik, arau orokor gisa ezartzen da gainerako arau-hausteez deuseztagarritasuna sortzen dutela, administrazio antolamenduan ohi den moduan.

4. Errekurtsio-prozeduretan bermeak indartzeko, 93. eta 202. artikuluetan ezartzen da esleitzeko ebazpena ez dela eraginkorra izan (ondorioen etendura) esleitzeko erabakiaren jakinarazpena igortzen denetik 10 egun iragan arte (15 egun, Europar Batasuneko gutxienezkotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen kasuan). Esleipena etenda geldituko da, halaber, kontratuaren esleipenaren kontrako erreklamazio bat aurkezten bada (ez beste ekintza batzuen kontra), organo eskudunak aurkaratzeaz ebatzi arte.

Nolanahi ere, zuzentarauarekin bat, esparru-akordio batetik edo erosketa-sistema dinamikotatik datozen kontratu esleipenak eraginkorrak dira ondorio guztiekin jakinarazten diren unetik bertatik, ulertzen baita akordioak edo sistemak legezkotasun kontrolak gainditu dituela. Zehazten da, era berean,

presaz izapidetutako kontratuetan (42. artikulua) ez daitekeela jarduketarik hasi etenaldia amaitu aurretik edo erreklamaziorik aurkezten bada.

Sistema ixteko arau gisa, etenaldian edo erreklamazioa izapidetu bitartean kontratuak formalizatzeari zehapena ezartzen zaio 126. eta 206. artikuluetan, kontratuak zuzenbide osoz deusez deklaratu.

5. Errekurtsio prozeduretan bermeak indartzeko, 2007/66/EE zuzentarauak ezartzen du errekurtsioen gaineko arduraren organo independente bati emanen zaiola, eta organo horretako kideak izendatu eta errebokatzeko baldintzak epaileei aplikatzen zaizkien berberak izan direla, "horiek izendatzen dituen agintariari, agintaldiaren iraupenari eta errebokatzeari" dagokienez. Horrexegatik, kide anitzeko organo independente bat sortu da, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia (208. bis artikulua), lizitazioen kontrako erreklamazioez ebatzeko zeregina duena. Zuzentarauaren estandarrek betetzeko, batzorde horretako karguek mugiezinak eta independenteak izan beharko dutela ezartzen da (kideak zuzenbidezko lizentziadunak izan beharko dira, eta esperientziadunak sektorean), eta haien bateraezintasun araubidea arautzen da; nolahi ere, dauden baliabideei etekina ateratzeko eta gastu publikoa kontrolatzeko, organo malgu bat diseinatu da, bertako kideentzat bateragarria izan dadin zeregin hori jatorrizko administrazioan duten lanpostuarekin, dedikazio eskusiborik gabe, beraz.

Amaitzeko, errekurtsio-prozeduren esparruan, aurkaratzeko epeak zuzentarauaren agindu berrietara doitu dira, zenbait zuzenketa tekniko egin dira, eta esleipenaren kontrako erreklamazioa (soilik esleipenaren kontrakoa, bestelako ekintzen kontrako aurkaratzeak ez baitakar ondorio hau) izapidetzen ari den bitartean kontratu baten edo esparru-akordio baten exekuzioa eteteko betebeharraren transposizioa egin da.

6. Esleipenetako gardentasuna indartzeko helburua lortu nahian, beste neurri bat kontratuen aldaketen araubidea aldatzea da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2004ko apirilaren 29an emandako epaiak (Batzordea CAS Succhi di Frutta Spa-ren aurka) ekarri duen doktrinaren oinarri hartuta, batez ere. Asmoa da ziurtatzea lizitazioaren lehia izaera ez dela kaltetzen, lizitaziotik ateratzen den kontratua benetan lehiaren xede izandakoa bera izan dadila alegia, baina xedea da, halaber, Administrazioak baliatzen diren *ius variandi*aren erregulazioa argitzea, operadore juridikoek jakin dezaten noiz den bidezkoa kontratu bat aldatzea, edo zein kasutan suntsiarazi behar den eta lizitazio berri bat egin.

105. artikulua mugatu egiten ditu aldaketak egiteko aukerak burututako kontratuetan, baldin eta horietan, baldintza agirietan edo lizitazio iragarkian argi, zehatz eta nahasbiderik gabe aurreikusi bada aldatzeko aukera, gehienez ere izan dezakeen esleipen prezioaren portzentajea berariaz adierazirik, eta hori balio zenbatetsian islatuta. Halere, kontratua aldatzeko aukera aurreikusten da ustekabeko inguruabarrak gertatzen direnean, esleipen-botere arduratsu batek aurreikusterik ez zituenak, betiere kontratuaren funtsezko edukari eragiten ez bazaio. Kasu batean nahiz bestean, aldatutakoek ez dute ekarriko, banaka nahiz batera, esleipen prezioaren ehuneko 20tik gorako aldaketarik.

7. Esleipenetan gardentasuna indartzeko neurri horiekin batera, foru legearen erreforman zenbait hobekuntza tekniko jaso dira, esperientziak aholkatuta eta arauaren menpeko entitateek eskatuta.

Halatan, kontratuen iraupena arautu da, lehiaren printzipioa eta kontratistak egiten dituen inbertsioak behar bezala amortizatzeko beharra uztartuz.

54. artikulua aldatu da, esleipen-hartzaileak bere kaudimena eta gaitasuna frogatzeko agiriak ez aurkezteak zenbait kasutan zekartzan ondorioak, gehiegizkoak eta garestiak, saihesteko, dokumentazio hori ez delarik eskatzen esleitzeko prozedura zehar.

74. artikuluko seigarren idatz-zatia aldatu da, enplegurako prestakuntzako zentro publikoak sartzeko, helburu bera eta arazo berberak dituzten zentroyen tratamendua homogeneizatzeko xedeaz, horrela bateratu eginen baita etengabeko prestakuntza, bai administrazio publikoetako langileei zuzendutakoa bai gainerako langileei ematen zaiena.

74. artikulua honetan zazpigarren idatz-zatia erantsi da, halaber, aldizkarien eta bestelako argitalpenen harpidetza egiteko, bai eta datu-base espezializatueta informazioaz baliatzeko zerbitzua kontratatzeke ere, betiere kalkulatueta balioa 200.000 eurotik beherakoa denean; halakoetan, eskatu daitezkeen izapide bakarrak izanen dira alde aurreko kreditu erreserba egitea, aplikatzeke den aurrekontuen arloko legeriarekin bat, eta kasuan kasuko faktura aurkeztea.

Hamalagarren xedapen gehigarria erantsi da, berariaz ezarriz foru lege honen aginduen menpe egonen direla segurtasun publikoaren esparruan arau honen xedapenak bete behar dituzten entitateek egindako kontratu publikoak, bereziki Nafarroako Foru Komunitatean pertsonak eta ondasunak babesteko jarduerak, eta segurtasun publikoa eta herritarren ordena mantentzekeak.

1. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 4. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“4. artikulua. Foru lege honen menpean dau den kontratuen definizioa.

1. Obra kontratua da foru lege honen menpeko entitate batek edo entitate-multzo batek (kontratazailea) enpresaburu edo profesional batekin (kontratista) egiten duena, foru lege honen I. eranskinean aipatutako jarduerekin zerikusia duten prestazioak egin ditzan, edo bestela proiektua eta prestazioak egin ditzan, prezio jakin baten truke.

2. Hornidura kontratua da foru lege honen menpeko entitate batek edo entitate-multzo batek (kontratatzailea) enpresaburu edo profesional batekin (kontratista) egiten duena, berari produktuak eta ondasun higigarriak erosteko, eskura nahiz epeka ordainduta, edo errentan hartzeko, erosteko aukerarekin nahiz aukerarik gabe, edo finantza errentamendua egiteko.

3. Laguntza kontratua da foru lege honen menpeko entitate batek edo entitate-multzo batek (kontratatzailea) enpresaburu edo profesional batekin (kontratista) egiten duena, obra eta hornidura kontratuez bestelakoa; kontratistak foru lege honen II. eranskinean aipatutako zerbitzuetako baten bat egin behar du kontratatzailearentzat edo, kontratatzailearen kontura, hirugarren batentzat edo herritar guztientzat, prezio jakin baten truke.

Artikulu honen 2. eta 3. idatz-zatietan aipatzen diren kontratuen indarraldia lau urtekoa izanen da, gehienez ere, haien luzapen guztiak barne, salbu eta ohiz kanpoko arrazoiak direla-eta, adibidez, inbertsioen amortizazio egokia kontratu bereziki konplexuetan, epe luzeagoa behar denean, betiere errespetatuz merkatuan lehia aske eta eragin-korra izatearen printzipioak.

4. Herri lanen emakida kontratua da foru lege honen menpeko entitate batek edo entitate-multzo batek (emakida-emailea) enpresaburu edo profesional batekin (emakida-hartzailea) egiten duena, foru lege honen I. eranskinean aipatutako obretako baten bat, ekonomikoki ustiatu ahal dena, egin eta ustia dezan; emakida-hartzaileari ordaina jasotzeko eskubidea aitortzen zaio, dela obra ustiatzea, dela ustiapen hori gehi prezio bat jasotzea.

5. Zerbitzuen emakida kontratua da foru lege honen menpeko entitate batek edo entitate-multzo batek (emakida-emailea) enpresaburu edo profesional batekin (emakida-hartzailea) egiten duena, foru lege honen II. eranskinean aipatutako zerbitzuetako baten bat egin dezan; ordainetan zerbitzuen ustiapen ekonomikoa ematen zaio, edo ustiapena gehi prezio bat”

2. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 8. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“8. artikulua. Baliabide berekiztat hartzen diren ente instrumentalei enkarguak egitea.

1. Foru lege hau ez da aplikatuko foru lege honen menpeko entitateek beren ente instrumentalei enkarguak egiten dizkietenean obretarako, hornidurarako, laguntzarako edo obra edo zerbitzu emakidak egiteko kontratuei dagozkien prestazioak egin ditzaten, baldin eta enkarguak artikuluhonetan adierazitako eran egiten badira. Artikuluhonetan xedatutakoa urratuz ente instrumentalei egiten zaizkien enkarguei ezarriko zaien zehapena zuzenbide osozko deuseztasuna izanen da.

2. Artikuluhonen ondorioetarako, ente instrumentaltzat joko da enkargua egiten duen entitatearenaz beste nortasun juridikoa izan, eta ondoko baldintzak betetzen dituen entitatea:

a) Enkarguak egiten dituzten entitateekiko erabakitzeke autonomiarik ez izatea, entitate enkarguegileak kontrolatzen duelako, bere zerbitzu edo unitateak kontrolatzen dituen antzera. Ente instrumentala sozietate bat baldin bada, eta enkargua entitate publiko batek egiten badu, ente instrumentalaren sozietate kapital osoa titularitate publikokoa izan beharko da.

b) Jardueraren zatirik handiena enkarguak egiten dituzten entitateentzat egitea.

Ente instrumentalaren izaerak espresuki emandako adierazpen bat beharko du, Nafarroako Kontratazioaren Atarian iragarritakoa, enkarguak zein arlotakoak izan daitezkeen ere adierazirik.

3. Ente instrumentalak nahitaez bete beharreko aginduen bidez gauzatuko dira enkarguak, eta betiere ente enkarguegileari dagokio eskatutakoa behar bezala egiten den begiratzea.

Europar Batasuneko gutxieneko zenbatekotik gorako balio zenbatetsia duten enkarguak egiteko agindua Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko dira, eman eta 7 eguneko epean gehienez ere, labur azalduta agindua justifikatzen duten egitatezko inguruabarrak eta zuzenbideko oinarriak, Kontratazio Publikorako Batzordeak zehazten duen formatuan, eta enkarguak ez dira exekutatzen hasiko iragarkia argitara eman eta 10 egun natural iragan baino lehen.

4. Enkarguaren xede diren lanen esleipenean interesa dutela frogatzen duten enpresek eta profesionalek kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztu ahalko dute enkargua Nafarroako

Kontratazioaren Atarian enkargua argitaratu eta biharamunetik hasita 10 egun naturaleko epean.

5. Ente instrumentalek baliabide material eta tekniko egokiak eduki beharko dituzte enkarguaren xede den prestazioaren zati handiena edo zati adierazgarri bat exekutatzeko, nahiz eta enkarguaren xede diren prestazioak emateko kontratazioak ere egin ahal izanen dituzten. Kontratazio horiek ezin izanen dute kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino gehiagoko exekuziorik hartu. Kontratu horien esleipena foru lege honen arauen menpe egonen da. Ondorio horietarako, ez dira hirugarrentzat joko entitate enkarguegileen beste ente instrumental batzuk.

Horretarako, enkargua egiten zaion ente instrumentalak, enkargua jaso eta bost eguneko epean, justifikatu egin beharko du, enkargua egiten dion entearen aurrean, horretarako baliabideak baditu-ela. Baliabiderik ez duela jotzen bada, enkarguaren xede den prestazioa foru lege honetan jasotako prozeduren arabera lizitatu beharko da.

Salbuespen gisa, kontratazio-portzentaje hori gainditzen ahalko da. Betiere, horrela jokatzeko, zorrozki justifikatu beharko da badela horretarako arrazoi justu bat, bidea emanen duena enkarguaren exekuzioa ekonomikoagoa, eraginkorragoa edo efizienteagoa izateko; esate baterako, merkatuaren ezaguera berezia, enpresa-antolamendu hobe edukitzea prestazioaren edo jardueraren osotasunaren exekuzioa –oro har hartuta– aurrera eramateko, edo bestelako arrazoiren bat, justifikatuko duena enkarguak prestazioari balio erantsi bat ezarriko diola azkenean.

Enkargu batean muga hori gainditu nahi bada, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu beharko da.

6. Ente instrumentalek ezin izanen dute parte hartu beren entitate nagusiak deitzen dituen esleipen prozeduretan”

3. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari 8. bis artikulua gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“8. bis artikulua. Kapital mistoko sozietateekiko kontratuak.

1. Foru lege honen pean dauden entitateek egini-ko kontratu eta emakidak, arau honetan aurreikusitako baldintzekin bat, zuzenean esleitu ahal izanen zaizkio kapital mistoko entitate bati, baldin eta entitate hori kapital publikoa eta pribatua izatekoa bada. Esleipen horiek ez dira enkargutzat joko.

2. Bazkide pribatua hautatzea eta kapital mistoko entitateari esleitu behar zaion kontratua edo

emakida, bai eta bazkide pribatuak zeregin horien exekuzioan emanen duen laguntza operatiboa eta/edo kapital mistoko entitatea kudeatzeari dagokionez emanen duen laguntza administratiboa ere, foru lege honetan aurreikusitakoaren araberako lizitazio bakarra egingen da. Bazkide pribatuaren hautaketa kapital mistoko entitatearen sorrerarekin batera joanen da eta kontratua edo emakida entitate horri esleitzearekin batera.

3. Baldintza agirian, edota lehia-elkarrizketa erabiltzen bada esleipen-prozeduran zehar, gutxienez ere honakoak ezarri beharko dira:

a) Kapital mistoko entitateari esleitu behar zaion kontratuaren deskribapena, adierazita entitate horren helburu sozial bakarra kontratu hori izanen dela, eta, behin kontratua amaituta, entitatea desegin egingen dela.

b) Entitate esleipen-hartzailearen eta kapital mistoko entitatearen harremana arautzen duten entitate-estatutuak eta akziodunen itunak.

c) Hautapenerako irizpide gisa, kapital-ekarpena sartzeari, eta, egin beharreko prestazio espezifikoiei dagokienez, eskaintzaren ezaugarriak.

d) Gainerako zer elementuk arautuko dituzten, batetik, entitate esleitzzailearen eta bazkide pribatuaren arteko harreman kontraktuala, eta, bestetik, entitate esleitzzailearen eta sortu beharrekoa den kapital mistoko entitatearen arteko harremana.

Lizitazio-iragarkian, kapital mistoko entitateak exekutatu beharreko kontratuari edo ustiatu behar duen emakidari zer iraupen aurreikusten zaion jasoko da, eta modu argi eta zehatzean adieraziko da zer aukera dauden eginkizun berriak esleitzeko, horiek ere kontuan hartuta kontratuaren balio zenbatetsian.

Nahitaez egin beharko da lizitazio-prozedura berri bat, baldin eta kontratu-xedapenen aldaketa bat, edozein dela ere, ez badago baldintza agirian aurreikusita edo ez bada gertatzen botere esleitzzaile arduratsu batentzat aurreikusezinak diren zirkunstantziengatik, eta ez baditu betetzen foru lege honetan kontratu-aldaketarako modu orokorrean exijitzen diren gainerako baldintzak.

4. Sortzen den kapital mistoko entitateak baliabide material eta tekniko egokiak eduki beharko ditu enkarguaren xede den prestazioaren zati handiena edo zati adierazgarri bat exekutatuzeko, nahiz eta enkarguaren xede diren prestazioak emateko azpikontratazioak ere egin ahal izanen dituen. Azpikontratazio horiek ezin izanen dute kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino gehiagoko exekuziorik hartu.

4. artikulua. Aldatu egiten da Kontratu Publiko-
ei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 18. artikuluko 1. idatz-zatiaren d) letra. Testu hau izanen du:

“d) Indarra duten xedapenek ezartzen dituzten betebeharrak tributariorak edo Gizarte Segurantzakoak beterik ez izatea, edota, kasua bada, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 3/1982 Legearen 38. artikulua 1. idatz-zatiko betebeharrak, erregelamenduz ezarritako moduan”

5. artikulua. Kontratu Publiko-
ei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 20. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“20. artikulua. Bateriaezintasunak eta haien ondorioak.

1. Pertsona fisiko lizitatzzaileak edo pertsona juridiko lizitatzzailearen administratzaileek kontratatuzeko bateriaezintasunen bat badute, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeetan jasoa, ezin izanen da kontraturik egin. Halaber, hauteskondeei buruzko legeria orokorrean aipatutako hautapen bidezko karguak edukitzea kontratatu ezin izateko arrazoa izanen da, legeria horretan ezarritako baldintzen arabera.

Kontratatu ezin izateko arrazoi horiek ezkontideak, ezkontzaren antzeko bizikidetzaren harreman afektiboak dituzten pertsonak eta ondorengoak ere ukitzen dituzte, baldin eta, azken horiei dagokienez, aipatutako pertsonen haien legezko ordezkariak badute.

2. Hala ere, 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten Nafarroako toki entitateetan, hautapen bidezko tokiko karguen bateriaezintasunaren ondorio bakarra abstentzio-arrazoi bat egotea izanen da, baldin eta kontratazio prozeduran eska daitezkeen izapide bakarrak badira alde aurreko kreditu erreserba egitea, aplikatzekoa den aurrekontu arloko legeriarekin bat, eta kasuan kasuko faktura aurkeztea.

3. Ezin izanen dute lizitazio prozeduretan parte hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak zehazten esku hartu duten enpresek, ez eta horiei lotutako enpresek ere.”

6. artikulua. Kontratu Publiko-
ei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 24. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“24. artikulua. Kontratuaren, esparru-akordioaren eta erosketa sistema dinamikoaren balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoa.

1. Foru lege honen testuan kontratuen zenbatekoa aipatzen den bakoitzean, ulertuko da haietan ez dagoela sarturik Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), espresuki kontrakoa adierazten denean izan ezik.

2. Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko oinarritzat zenbateko osoa hartuko da, BEZa sartu gabe. Kalkulu horretarako kontuan hartuko da zenbatetsitako kopuru osoa, horren barranean sartuta edozein aukera mota, kontratuaren balizko luzapenak, kontratuaren aldaketen zenbatekoa, lizitazio aurrekontuaren zenbatekoaren gainean kalkulaturia, eta, halakorik bada, hautagai edo lizitatzailentzako prima edo ordainketak.

3. Lizitazioari buruzko iragarkia bidaltzen denean eginen da zenbatespena, edo, iragarkiaren beharrik ez badago, kontratua esleitzeko prozedura hasten denean.

4. Obra kontratuetan balio zenbatetsia kalkulatzeko, kontuan hartu beharko dira obren zenbatekoa eta, gainera, kontratua exekutatzeko aldera kontratistaren eskueran jartzen diren materialen balio zenbatetsi osoa.

5. Obra proiektu edo laguntza kontratu baten ondorioz posible denean kontratuak lote berezietan eta aldi berean esleitzea, lote guztien balio zenbatetsi osoa hartu beharko da kontuan. Loteen balio metatua Europar Batasunean publikitate egiteko ezarritako gutxieneko zenbatekoa adina edo handiagoa denean, publikitatea lote bakoitzaren esleipenari aplikatuko zaio.

Hala ere, foru lege honen menpeko entitateek lote bakoitzaren zenbatekoa soilik hartu ahalko dute kontuan, haien balio zenbatetsia 80.000 eurotik beherakoa denean, BEZa aparte, laguntza kontratuetan, eta 1.000.000 eurotik beherakoa, BEZa aparte, obra kontratuetan, baldin eta lote horien zenbateko metatua lote guztien balio metatuaren 100eko 20 baino handiagoa ez bada.

6. Hornidura homogeenak lortzera bideraturiko proiektu batetik abiatuak lotetan banaturiko kontratuak aldi berean esleitzea gerta daitekeenean, lote guztien balio zenbatetsi osoa hartu behar da kontuan, Europar Batasunean egin beharreko publikitateari dagokionez.

Hala ere, entitate kontratatzaileek 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia (BEZa aparte) duten loteen zenbatekoa bakarrik hartu ahalko dute kontuan, baldin eta lote horien zenbateko metatua lote guztien balio metatuaren ehuneko 20 baino handiagoa ez bada.

7. Hornidura kontratuetan, produktuen hornidura finantza-errentamenduaren, errentamenduaren

edo epekako salerosketaren bidez egiten bada, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko oinarritzat hartu beharreko balioa honakoa izanen da:

a) Hamabi hilabete edo gutxiagoko iraupen mugatua duten kontratuetan, kontratuaren iraunlarako zenbatetsitako balio osoa, eta, hamabi hilabetetik gorako iraupena badute, haren balio osoa, hondar-balio zenbatetsia ere barne.

b) Iraupen mugagabeko kontratuetan, edo kontratuaren iraupena zehaztu ezin denean, hileko balioa bider 48.

8. Hornidura edo laguntza kontratu aldizkakotan edo epe jakinean berriro behar diren horietan, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko oinarritzat honakoa hartuko da:

a) Aurreko ekitaldian edo aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako elkarren segidako antzeko kontratuen benetako balio osoa, hasierako kontratuaren ondoko hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kantitate edo balio aldaketen arabera doitu, ahal bada.

b) Edo bestela, lehenbiziko entregaren ondoko hamabi hilabeteetan edo, ekitaldiak hamabi hilabete baino gehiago irauten badu, ekitaldian zehar esleitutako elkarren segidako kontratuen balio zenbatetsi osoa.

Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoa ezin izanen da aukeratu Europar Batasunean egin beharreko publikitatea saihesteko helburuarekin.

9. Laguntza kontratuei dagokienez, haien zenbateko zenbatetsia kalkulatzeko oinarritzat hartuko da, hala behar denean, ondoko zenbatekoa:

a) Aseguru kontratuetan, ordaindu beharreko prima eta beste ordain mota batzuk, eta bankuzerbitzu eta bestelako finantza zerbitzuetarako kontratuetan, ordainsariak, komisiok, korrituak eta beste ordain mota batzuk.

b) Proiektu bati dagozkion kontratuetan: ordainsariak, ordaindu beharreko komisiok eta beste ordain mota batzuk.

c) Prezio osoa zehaztuta ez duten kontratueta-rako:

– Iraupen mugatuko kontratuetan, berrogeita zortzi hilabete edo gutxiago irauten badute, iraunaldi osoari dagokion balio zenbatetsi osoa.

– Iraupen mugagabeko edo berrogeita zortzi hilabetetik gorako kontratuetan, hileko balioa bider 48.

10. Esparru-akordioetarako eta erosketak sistema dinamikoetarako, balio hau hartuko da kontu-

an: esparru-akordioaren edo erosketa sistema dinamikoaren iraunaldi osorako aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia, BEZa aparte”

7. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 35. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“35. artikulua. Kontratuen prezioa

1. Kontratuek beti ere prezio zehatza izanen dute, merkatura egokitua, eurotan adieraziko dena eta egiazki eginiko prestazioaren arabera eta hitzartuarekin bat kontratistari ordainduko zaiona. Kontratuan ezarritako baldintzek atzerriko monetan ordaintzera behartzen dutenean, haren gehieneko zenbatekoa eta dibisa mota ere adierazi beharko dira, eurotan emandako guztizko prezioaz gain

2. Kontratuen prezioen berraztertzea foru lege honetan ezarritokora egokituko da.

3. Kontratuetan prezioaren ordainketa geroratu debekatzen da, non ordainketa sistema ez den ezartzen finantza errentamenduaren bidez edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidez, edo Nafarroako Gobernuak espresuki baimentzen duen.

Hala ere, finantza-errentamenduaren bidezko edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidezko ordainketa ezarria duten kontratuetan, ordainketarako gehieneko epea lau urtekoa izanen da, kontratuaren esleipenetik hasita, epe luzeagorik ez bada adosten, horretarako Nafarroako Gobernuak baimena eman ondotik.

Nafarroako gainerako Administrazio Publikoen kasuan, foru lege honen 2. artikulua a), c) eta d) letretan aurreikusitako horietan, aurreko legeroaldeetan aurreikusitako baimena ematea administrazio horietako organo eskudunari dagokio, bere berariazko araudiak ezarritakoari.

4. Administrazioak kontratuak finantzatzeko dituzten prestazioaren exekuzioak behar duen errotimora egokiturik. Helburu horretarako, bai urteko sariak programatzean bai kontratua exekutatzeko ari den bitartean beharrezko diren neurriak hartu beharko ditu kontratua kudeatzen duen unitateak”

8. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 37. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“37. artikulua. Kontratatzeko baimena.

1. Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako kontratazio organoek

Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute kontratu hauek izenpetzeko:

a) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 3.000.000 eurotik gorakoa dutenak; eta zenbateko txikiagoa dutenak, baldin eta, haien garrantzia kontuan hartuta, kontratazio organoak erabakitzen badu Nafarroako Gobernuari igortzea, hark baimena eman dezan”

b) Urte anitzeko kontratuak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean aurreikusitakoarekin bat.

2. Erakunde autonomoetako kontratazio organoek, zein departamenturi edo zuzendaritza nagusiri atxikita dauden, haren baimena beharko dute, BEZa kenduta 750.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak izenpetzeko.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoarekin bat, goragoko baten baimena behar duten kontratuetan, baimen hori kontratazio espedientearen onetsi aitzin emanen da. Baimen hori, gastuaren onespenez bezala, kontratazio organoari dagokio.

4. Goragoko batek baimena emanda izenpetzen diren kontratuetan, baimena beharko da, halaber, suntsiarazpena dakarten aldaketak egiteko eta kontratua suntsiarazteko.

5. Izenpetzerakoan 1. idatz-zatikoa a) letretan jasotakoa aplikatzen den kontratuetan, kontratazio-espedienteak bideragarritasun-plan bat izanen du, non, besteak beste, ekonomia-, finantza- eta gizarte-errentagarritasuna balioetsiko baita. Behar denetan, bideragarritasun-planak ustiapen-gastuei buruzko aurreikuspena jasoko du, gutxienez ere hamar urteko eperako”

9. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 42. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“42. artikulua. Presako izapidetzearen espedienteak.

1. Presako izapidetzea izan ahalko dute beharrragatik luzapenik onartzen ez duten kontratazio espedienteek eta, halaber, interes publikoa dela kausa, esleipena azkartzea behar dutenek. Horretarako, kontratazio organoak izapidetzea presakoa dela adierazi beharko du, arrazoiak behar bezala azalduz, eta deklarazio hori espedientearen sartuko da.

2. Presako espedienteak arruntan modu berean izapidetuko dira, baina berezitasun hauekin:

a) Aurreiazko izapidetzean parte hartzen duten administrazio, fiskalizazio eta aholku organoen

eginbideetan lehentasuna izanen dute; izan ere, horiek bost eguneko epea izanen dute dagokien txostena emateko. Espedientearen zailtasuna dela kausa edo beste arrazoi justifikatu batengatik, epe horretan hura bideratzerik ez badago, administrazio, fiskalizazio eta aholku organo horiek preska deklaratu duen kontratazio organoari jakinarazi beharko diote. Horrelako kasuetan epea hamar egunera arte luzatuko da.

b) Administrazioak kontratua exekutatzan hasi dadin erabaki ahalko du foru lege honen 93.2 artikuluan ezarritako etendura epea amaitu ondoren eta hura formalizatu baino lehen, betiere, aurretik kontratuko betebeharrak betetzeko bermeak jarri baldin badira, administrazio klausula partikularren agirian halakorik eskatzen bada.

c) Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea foru lege honetan aurreikusitako kasuetan bakarrik laburtu ahalko da.

d) Kontratua esleitzen den egunetik exekutatzen hasi bitarte ez dira bi hilabete baino gehiago joanen, bestela kontratua suntsiaraziko baita.”

10. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 45. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“45. artikulua. Administrazio klausula partikularren agiriak.

1. Lizitazio prozedura guztietan aurretiaz finkatuko dira aldean eskubide eta betebeharren alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoak zehazteko itun eta baldintzak, hau da, administrazio klausula partikularren agiriak, foru lege honetan aurreikusitako berezitasunak salbu.

Agiri horiek ez dira izanen lege-xedapenen zerrenda soilak. Ezin izanen dute administrazio klausula orokorren agiriarekin bat ez datorren baldintzarik eduki, halako orriak egonez gero, kasu berezietan izan ezik, eta horrelako kasuetan Kontratazio Publikorako Batzordeak txostena egin beharko du aurretik.

2. Agirietan kontratua esleitzeko irizpideak ezarriko dira. Irizpideren bat funtsezkotzat joko den edo irizpideren batean eskaintza baztertuta ez izateko gutxienezko puntuaziorik eskatuko den zehaztuko da, deusetan galarazi gabe teknikoki egokiak ez diren edo kontratua behar bezala exekutatu dela bermatzen ez duten eskaintzak baztertzeko ahalmena.

3. Agirietan adierazi beharko da lizitatzailleek helbide elektroniko bat eman behar dutela, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa jartzen

bada jakinarazpenak bide telematikoetatik egin ahal izateko.

4. Administrazio klausula partikularren agirian eta, lehia-elkarrizketa badago, deskripzio agirian, esleipenerako irizpideetako bakoitzari dagokion ponderazio erlatiboa ezarriko da. Ponderazio hori balio-tarte egokia finkatuz adierazi ahal izanen da.

Justifikatutako arrazoiak direla medio ezin bada esleipen irizpideen ponderaziorik ezarri, garrantziaren arabera ordenatuko dira, garrantzi handiena duen irizpidetik hasita beheranzko hurrenkeran.

5. Kontratuaren baldintza ekonomikoak aldatzeaz 105.2.a) artikuluan aurreikusitako prerrogatibaz baliatzeko, administrazio klausula partikularren orrian aipatu eta arautu beharko da aukera hori, bai eta adostu daitezkeen aldaketan norainokoa eta mugak ere, espresuki adieraziz esleipen prezioaren zein gehieneko ehunekori eragin ahal dion; portzentajea hori ez da inola ere izanen ehuneko 20tik gorakoa.

Horrekin batera, foru lege honen 108. artikuluan arautzen den ahalmena, egiaz exekutatutako unitateen kopurua aldatzekoa, erabiltzeko aukera ere aipatu beharko da, eta horren portzentajea, esleipen-prezioaren ehuneko 10etik beherakoa betiere.

6. Kontratazio organoak agiriak onetsiko ditu, gastua baimentzearekin batera edo lehenago, eta betiere kontratua lizitatu baino lehen, foru lege honetan jasotako arau berezien kalterik gabe.

7. Kontratua formalizatzeko agiriak administrazio klausula partikularren orrien edukiaren araberrakoak izanen dira, eta horien klausulak haien zatizat hartuko dira.

8. Kontratazio organoak klausula partikularren agiri-eredu orokorrak onetsi ahal izanen ditu bere eskumeneko eremuan erabil daitezzen, kasu zehatz bakoitzari egokituta.”

11. artikulua. Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 51.1.b) artikulua aldatzen da. Honela geldituko litzateke:

“b) Gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten irizpideak erabiliko dira, eta lehentasuna emanen zaie, irizpide subjektiboen aurretik, formula bidez baloratzeko moduko irizpideei; puntuazioaren ehuneko 50 gutxienez, irizpide horien bidez emanen da.

Irizpideak zehaztasunez ezarriko dira; zein garrantzi erlatibo duten espezifikatuko da, eta kontratuaren xedearekin egon beharko dute lotuta. Irizpide gisa ezarriko dira, esate baterako, kalitatea

edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio teknikoa, ordezko produktuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumenari dagozkion ezaugarriak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, eta antzeko beste batzuk. Hobekuntzak aurkezteko aukera baloratzen bada, adierazi egin beharko dira hobekuntza horien baldintzak, mugak, modalitateak eta aski identifikatzeko bidea emanen duten ezaugarriak, eta kontratuaren xedarekin zerikusi zuzena izan beharko dute”.

12. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 54. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“54. artikulua. Proposamenak aurkezteko dokumentazioa.

1. Eskaintzetan edo parte hartzeko eskabideetan, enpresen gaitasuna eta kaudimena frogatzeko agiri hauek erantsiko dira:

a) Kontratatutaren nortasun juridikoa eta, hala, korik dagoenean, beraren ordezkaritza frogatzen dutenak.

b) Bermeak jarri direla frogatzen dutenak, administrazio klausula partikularren agirian hala eskatzen denean.

c) Lizitazio prozeduratik enpresa baztertzeko arrazoirik ez dagoela dioen adierazpena.

d) Enpresaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala frogatzeko agiriak.

e) Enpresak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beterik dituela frogatzen duten agiriak.

f) Enpresak laneko segurtasuna eta osasuna zaindu eta laneko arriskuei aurrea hartzeko betebeharrak, indarra duten xedapenetan ezarritakoak, beterik dituela dioen adierazpena.

g) Atzerriko enpresendako, edozein mailatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpean jarriko direla dioen deklarazioa, kontratutik, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta hala gertatzen denean, lizitatuzaile edo hautagaiari dagokiokkeen jurisdikzio foruari uko eginen diola.

2. Foru lege honen arabera beste agiri batzuk aurkeztea beharrezkoa denean, administrazio klausula partikularren agirian eta lizitaziorako iragarkian ere aipatu beharko dira.

3. Aurkeztutako dokumentazioan zerbait falta bada edo zalantzarik badago, lizitatuzaileari eskatu eginen zaio, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala frogatzeko aurkeztu dituen ziurtagiri eta agiriak osatu edo zuzendu ditzan. Horretarako bost eta hamar egun bitarteko epea emanen zaio, inguruabarren arabera.

4. Administrazio klausula partikularren orrietan ondokoa ezarri ahalko da: artikulua honen 1. idatzatziaren a), d) eta e) letretan eskatzen den hasierako dokumentazio-ekarpenaren ordez lizitatuzaileak erantzukizuneko aitorpena aurkez dezala, kontratatutako eskatzen diren baldintzak betetzen dituela dioena. Halakoetan, esleipen proposamena bere alde jaso behar duen lizitatuzaileak gehienez zazpi eguneko epea izanen du, kontratazio mahaiak edo kontratua kudeatzen duen unitateak hala dela jakinarazten diotenetik, eskatzen diren agiriak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko.

Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, lizitatuzailea prozeduratik kanpo geldituko da, eta lizitaziorako jarritako bermeak kenduko zaizkio edo kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gaineratik eragindako kalte eta galerengatik”.

13. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 61. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“61. artikulua. Kontratazio mahaiaren eginkizunak:

1. Kontratazio mahaiaren eginkizunak ondokoa dira:

a) Nortasunaren eta, halakorik denean, ordezkaritzaren egiaztagiriak kalifikatzea, bai eta kontratatu ezin izateko arrazoiei dagozkien agiriak ere.

b) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa nahiz gaitasun tekniko edo profesionala balioestea.

c) Hautagaitza aurkeztu duten enpresaburuak onartu eta, kasua bada, aukeratzea, horrela aurreikusten den prozeduretan, eta eskaintza aurkezteko gonbita egitea.

d) Eskaintza teknikoa balioestea, esleipenerako irizpide gisa eskaintzarik onuragarriena hartzea duten prozeduretan.

e) Eskaintza ekonomikoak jendaurrean irekitzea eta ekitaldi horretan gertatzen diren gorabeherak ebaztea.

f) Eskaintzaren bat baxuegia ote den balioes-
tea, foru lege honetan ezarritako prozedura izapi-
detu ondoren.

g) Esleitzeko proposamena jasoko duen lizita-
tzaileari eskatzea administrazio klausula partikula-
rren agiriaren arabera beharrezkoa den dokumen-
tazioa aurkez dezala.

h) Kontratua esleitzeko proposamena egitea
kontratazio organoari.

i) Proposamenak kalifikatu eta balioesteko
behar diren eginkizun guztiak, bai eta esleipenera-
ko proposamena egiteko behar direnak eta legeen
esleitzen zaizkion gainerakoak ere.

2. Kontratazio mahaiko kideei bermatzen zaie
eskubidea izanen dutela beren iritzia adierazteko,
gehiengoarenaren kontrakoa bada, eta beren
jarreraren arrazoiak aktan ager daitezten.

3. Kontratazio mahaia, bere proposamena
egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten
guztiak eskatu ahalko ditu, kontratuaren xedea-
kin zerikusia dutenak.”

14. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekai-
naren 9ko 6/2006 Foru Legearen 65. artikulua
aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurreran-
tzean:

“65. artikulua. Europar Batasuneko gutxieneko
zenbatekotik beherako prozedura irekiaren nondik
norakoa.

Europar Batasuneko gutxieneko zenbatekotik
beherako prozedura irekian izapide hauek egingen
dira:

a) Kontratua kudeatzen duen unitateak txoste-
na egitea, kontratua interes publikorako beharrez-
koa edo komenigarria dela justifikatuta.

b) Kontratazio organoak baimena ematea,
BEZa kontuan hartu gabe 300.000 eurotik gorako
balio zenbatetsia duten obra kontratuatarako.

c) Kontratua kudeatzen duen unitateak admi-
nistrazio klausulen eta agindu tekniko partikularren
agiriak prestatzea. Administrazio klausula partiku-
larren agiria erraztua izaten ahalko da. Bertan
ondokoak arautuko dira:

c.1. Kontratuaren izaera eta xedea.

c.2. Kontratazio organoaren eta kontratua
kudeatzen duen unitatearen identifikazioa.

c.3. Kontratuaren zenbatekoa.

c.4. Gutxieneko kaudimen baldintzak.

c.5. Eskaintzak aurkezteko arauak.

c.6. Kontratazio mahaia izendapena, hala-
korik bada.

c.7. Kontratua esleitzeko irizpideak.

c.8. Kontratua aldatzeko aukera eta igoeraren
gehieneko portzentajea, esleipen prezioaren gai-
netik.

c.9. Ordaintzeko moduari buruzko arauak eta,
behar izanez gero, prezioak berrikusteko arauak.

c.10. Egintzak aurkaratzeko eta errekurtsioak
jartzeko araubidea. Adieraziko da lizitatzailerak hel-
bide elektronikoko bat eman behar duela, jakinaraz-
penak bide telematikotatik egiteko.

d) Kreditu erreserba dagoela frogatzen duen
agiria, aplikatzeko den aurrekontuen arloko lege-
riarekin bat.

e) Txosten juridikoa.

f) Lizitazioari buruzko iragarkia argitaratzea
Nafarroako Kontratazioaren Atarian, kontratua
kudeatzen duen unitateko titularrak baimenduta.
Bertan eskura egonen dira administrazio klausula
eta agindu tekniko partikularren agiriak, oso-oso-
rik. Bereziki konplexuak diren kontratuatan, agiri
osagarriak kontsultatu behar izaten baitira, eta
obra proiektuetan, aditzera emanen da interesdu-
nek zein helbidetan lor ditzaketen agiri horiek.

g) Aurkezturiko lizitatzailerak onartzea eta,
kasua bada, eskaintzak balioestea, eskainitako
prezinoa aparte utzita, esleipenerako irizpidea
eskaintzarik onuragarriarenaren dute prozedure-
tan.

h) Eskaintzak jendaurrean irekitzea.

i) Kontratua kudeatzen duen unitateak edo kon-
tratazio mahaia esleipen proposamena egitea.

j) Kontu-hartzaitzak gastua fiskalizatzea.

k) Kontratazio organoak esleipena egiteko eta
gastua onesteko ebazpena ematea.”

15. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekai-
naren 9ko 6/2006 Foru Legearen 68. artikulua
aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurreran-
tzean:

“68. artikulua. Europar Batasuneko gutxieneko-
tik beherako prozedura murriztuaren nondik nora-
koa.

Europar Batasuneko gutxienekotik beherako
prozedura murriztuan izapide hauek egingen dira:

a) Kontratua kudeatzen duen unitateak txoste-
na egitea, kontratua interes publikorako beharrez-
koa edo komenigarria dela justifikatuta.

b) Kontratazio organoak baimena ematea, BEZa kontuan hartu gabe 300.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten obra kontratuatarako.

c) Kontratua kudeatzen duen unitateak administrazio klausulen eta agindu tekniko partikularren agiriak prestatzea. Administrazio klausula partikularren agiria erraztua izaten ahalko da. Bertan ondokoak arautuko dira:

c.1. Kontratuaren izaera eta xedea.

c.2. Kontratazio organoaren eta kontratua kudeatzen duen unitatearen identifikazioa.

c.3. Kontratuaren zenbatekoa.

c.4. Kaudimen baldintzak eta kaudimena balio-esteko arauak.

c.5. Hautagaiak aukeratzeko irizpideak.

c.6. Eskaintzak aurkezteko arauak.

c.7. Kontratazio mahaiaren izendapena, halakorik bada.

c.8. Kontratua esleitzeko irizpideak.

c.9. Kontratua aldatzeko aukera eta igoyeraren gehieneko portzentajea, esleipen prezioaren gainetik.

c.10. Ordaintzeko moduari buruzko arauak eta, behar izanez gero, prezioak berrikusteko arauak.

c.11. Egintzak aurkaratzeko eta errekurtsioak jartzeko araubidea. Adieraziko da lizitatuzaileak helbide elektronikoko bat eman behar duela, jakinarazpenak bide telematikoetatik egiteko.

d) Kreditu erreserba dagoela frogatzen duen agiria, aplikatzekoa den aurrekontuen arloko legeriarekin bat.

e) Txosten juridikoa.

f) Lizitazioari buruzko iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian, kontratua kudeatzen duen unitateko titularrak baimenduta. Bertan eskura egonen dira administrazio klausula eta agindu tekniko partikularren agiriak, oso-oso-rik.

g) Eskaintza aurkeztera gonbidatuko diren enpresak aukeratzeko, administrazio klausula partikularren agirian ezarritako irizpideei jarraituz.

h) Eskaintza aurkezteko idatzizko gonbitak bidaltzea, denak aldi berean. Horrekin batera jakinaraziko dira eskaintzak aurkezteko azken eguna, eskaintzari erantsi beharreko agiriak eta eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldirako jarraibide zehatzak.

i) Eskaintza balioestea, eskaintako prezioa alde batera utzirik, esleipen irizpidea eskaintzarik onuragarriena hartzea duten prozeduretan.

j) Eskaintzak jendaurrean irekitzea.

k) Kontratua kudeatzen duen unitateak edo kontratazio mahaiak esleipen proposamena egitea.

l) Kontu-hartzaitzak gastua fiskalizatzea.

m) Kontratazio organoak esleipena egiteko eta gastua onesteko ebazpena ematea”

16. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 74. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“74. artikulua. Europar Batasunean publizitate-rik ez duen prozedura negoziatuaren nondik norakoa.

1. Prozeduraren dokumentazioan honakoak bildu behar dira: unitate kudeatzaileak prestatutako kontratuak ase behar dituen beharrei buruzko txostena, kontratuko funtsezko baldintzak, txosten juridikoa, eta aplikatzekoak diren aurrekontu legeei jarraituz kreditu erreserba egin dela frogatzen duen agiria. Gainera, BEZa sartu gabe 300.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten obra kontratuatan, kontratazio organoaren baimena beharko da.

Funtsezko baldintzetan, berriz, lizitatuzaileekin negoziatzeko ezinbestekoak diren betekizun juridiko, ekonomiko eta tekniko guztiak bildu behar dira, eta negoziazioaren alderdiak zehaztu.

Funtsezko baldintza horietan ohartarazi behar da lizitatuzaileak helbide elektronikoko bat eman behar duela, kontratu publikoaren arloko erreklamazioetan jakinarazpenak bide telematikoetatik egin ahal izateko.

2. Negoziatzeko gonbitak idatzita eta denak aldi berean bidali behar dira, proposamenak aurkezteko azken eguna, Administrazioak ase nahi dituen beharrak eta negoziazioaren alderdiak zehaztuta.

3. Negoziazioan lizitatuzaile guztiek tratua bera jaso dezaten begiratuko da. Batez ere, ez da bereizkeriaz jokatu informazioa ematean, lizitatuzaile batzuek besteen aldean mesede egin diezaikeen informaziorik izan ez dezaten. Bidalitako gonbitak, egindako negoziazioak eta jasotako proposamen edo eskaintzak behar bezala dokumentatuko dira.

4. Negoziazioa amaitutakoan, unitate kudeatzaileak esleipen proposamen justifikatua aurkeztuko du.

5. Kontratazio organoak kontratua esleitzeko ebazpena emanen du eta gastua onetsiko du, Kontu-hartzailetzak fiskalizatu ondoren.

6. Kontratuaren xedea irakaskuntza edo prestakuntzako jardueraren bat denean (Administrazioaren zerbitzuko langileentzako prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak edo enplegurako prestakuntzako zentro publikoetan emandako prestakuntza ekintzak, bai eta mintegi, solasaldi, mahai-inguru edo hitzaldiak, kolaborazioak, zientzi artikuluak edo idatzizko materialen prestaketa ere), eta espezialitate artistikoan eta antzeko jardueretan esleitzekoak diren kontratuetan, izapide hauek baizik ez dira egin beharko: aurretiaz kreditua erreserbatzea, organo eskudunak hautaketa edo izendapena egitea, eta kasuan kasuko faktura aurkeztea.

7. Aldizkarien eta bestelako argitalpenen harpidetza egiteko, zein den ere haien euskarria, bai eta datu-base espezializatueta informazioaz baliaitzeko zerbitzua kontratatzeke ere, betiere balio zenbatetsia 200.000 eurotik beherakoa denean; halakoetan, eskatu daitezkeen izapide bakoarrak izanen dira alde aurreko kreditu erreserba egitea, aplikatzekoa den aurrekontuen arloko legeriarekin bat, eta kasuan kasuko faktura aurkeztea. Kontratazio hori eginen da hornitzaileek aplikatzen dituzten baldintza orokorrak betez, ordaintzeko formulei dagozkienak barne, eta kasu hauetan prezioaren ordainketa kontratuak agintzen dituzten baldintzetan aurreikusitako moduan eginen da; entrega egin edo prestazioa eman aurretik ordaintzea onartuko da, betiere merkatuan ohikoa baldin bada.

Aurreko idatz-zatian aipatzen diren kontratuak bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoen bidez izenpetzen badira, entitate kontratatzaileek kontsumitzaile izaera izanen dute, informazioaren gizartearen eta merkataritza elektronikoen zerbitzuen gaineko legerian aurreikusitako ondorioetarako.”

17. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 92. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“92. artikulua. Kontratuaren esleipena.

1. Esleipen prozeduran kontuan hartzen den irizpide bakarra eskaintako prezioa denean, gehienez ere hogeiguneko epean egin beharko

da esleipena, eskaintzak jendaurrean ireki eta biharamunetik hasita.

2. Esleipen prozeduran kontuan hartzen den irizpidea eskaintzarik onuragarriena hartzea denean, kontratazio organoak gehienez ere hilabeteko epean esleitu du kontratua, eskaintako prezioa jendaurrean irekitzen denetik hasita, salbu eta administrazio klausula partikularren agirian beste epe bat ezartzen denean.

3. Epe horietan esleipenari buruzko erabakirik hartzen ez bada, lizitazioan parte hartzeko onartutako enpresaburuek beren proposamenak bertan behera utzi ahal izanen dituzte inolako penalizazio jaso gabe.

4. Kontratazio organoak esleipen proposamenarekin bat datorren esleipen ebazpena emanen du, proposamen horrek antolamendu juridikoa urratzen duen kasuetan izan ezik; hala denean, Kontratazio Publikorako Batzordeak txosten loteslea eman ondoren lizitazioa baliogabetu eginen da, salbu eta arau-hausteak esleipenerako proposatu den lizitatuak baino ukitzen ez badu; kasu horretan, esleipena emanen zaio eskaintzen balorazioaren araberrako zerrendako hurrengo lizitatuak, arau-hausteak eragiten ez badi, betiere.

5. Esleipenaren ebazpena arrazoitua izanen da, baztertutako hautagaitza edo eskaintza bakoitza zergatik baztertu den eta aukeraturako eskaintzak zer ezaugarri edo onura dituen eta esleipenak noiz izanen duen eraginkortasun osoa azalduko baitu, eta interesdunei jakinaraziko zaie, administrazio prozedura arautzen duen legerian xedatutakoari jarraituz.

Salbuespenez, zilegi izanen da hautatutako eskaintzaren datuak isilean uztea, legeria aplikatzeko oztopo bada, interes publikoaren kontrakoa bada, enpresen merkataritza-interes zilegiei kalte egiten badie edo enpresen arteko lehia bidezkoa eragotz badezake.

6. Esleipen prozeduran erabiltzen den irizpidea eskaintzarik onuragarriena hartzea denean, esleipena eman gabe utzi ahal izanen da interes publiko arrazoiengatik, nahiz eta aurkeztutako eskaintzak administrazio klausula eta baldintza tekniko partikularren agiriarekin bat etorri, baldin eta, inguruabar faktiko edo juridikoen ondorioz, zentzuzkoa bada interes publikoa lehenestea, kontratuaren bidez ase behar diren beharrak kontuan izanik.

7. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, betiere kontratazio organoak ahalmena izanen du lizitazioari, esparru-akordioari, erosketa sistema dinamiko baten ezarpenari edo exekutatzeko hasi

gabeko kontratu formalizatu bati uko egiteko edo horietan atzera egiteko, interes publikoko arrazoiengatik. Kontratazio organoak ahalmen hori erabiltzen duenean, administrazio ebazpena arrazoitua izanen da eta interesdunei jakinaraziko zaie administrazio prozedura arautzen duen legerian xedatutako moduan.”

18. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 93. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“93. artikulua. Kontratua burutzea.

1. Eskumena duen kontratazio-organoak egin dako esleipenaren bidez burutzen dira Administrazioaren kontratuak, edozein izanik esleipen prozedura.

2. Esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko da arau hauei jarraikiz:

a) Obra, hornidura eta laguntza kontratuetan, haien balio zenbatetsia Europar Batasuneko gutxienezko behera dagoelarik, 10 egun naturaleko epean esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita.

b) Obra, hornidura eta laguntza kontratuetan, haien balio zenbatetsia Europar Batasuneko gutxienezko gora dagoelarik, bai eta obra eta zerbitzu emakidetan ere, 15 egun naturaleko epean esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita.

Horretarako, espedienteetan ageri beharko da esleipenaren jakinarazpena igorri zen egunaren berri ematen duen ziurtagiria.

3. Esleipen egintza eten eginen da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezte hutsagatik, harik eta erreklamazio hori ebatzi arte.

4. Esparru-akordioetatik eta erosketa sistema dinamikoetatik sortutako kontratuak esleipena jakinarazten den egunetik aurrera izanen dute eraginkortasuna.”

19. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 94. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“94. artikulua. Kontratuak formalizatzea.

1. Kontratuak agiri administratiboan formalizatuko dira 15 egun naturaleko epean, esleipenaren etenaldia amaitzen denetik aurrera. Administrazio agirian formalizatutako kontratuak edozein erregistro publikotan sarrera izateko aski titulu izanen dira.

2. Kontratatari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua behar den epean formalizatzen ez bada, kontratazio organoak bi aukera izanen ditu: kontratua suntsiaraztea, interesdunari entzun ondoren, eta lizitaziorako jarritako bermeak atxikitzea edo interesdunari penalizazioa ezartzea, kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5ekoa hain zuzen, eta kalte-ordain osagarria eskatzea porzentaje horren gainetik eragindako kalte eta gale-rengatik; edo beste epe bat ematea, luzaezina, kontratuaren exekuzioa atzeratzen den kasuetarako administrazio klausula partikularren agirian aurreikusten den penalizazio araubidea aplikatuta.

3. Kontratua behar zen epean formalizatu ez izanaren arrazoiak Administrazioari egotzen ahal bazaizkio, kontratatariak kontratua suntsiarazteko eta dagokion kalte-ordaina emateko eskatu ahalko du.

4. Kontratua formalizatu arte ezin izanen da kontratuaren exekuzioa hasi, ezertan ukatu gabe larrialdiko kontrataziorako, presaz izapidetzen diren kontratuetarako eta faktura izan ezik beste agiririk eskatzen ez den prozeduretarako aurreikusitakoa.”

20. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 97. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“97. artikulua. Esleipenen publizitatea.

1. BEZa kontuan hartu gabe 50.000 euroko zenbatekoa edo handiagoa duten kontratuen esleipenak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko dira, kontratua esleitzen denetik hasita 48 eguneko epean. Lizitazio iragarkirik argitaratu ez denean, kontratuen esleipenaren iragarkietan hori arrazoitzeko egitatezko inguruabarren eta zuzenbideko oinarrien azalpen laburra ere jasoko da.

Aurrez ezarri den erosketa sistema dinamiko batean oinarritutako kontratuen kasuan, esleipenak banaka argitaratu ordez, hiruhileko bakoitzean esleitutako kontratuena batera egin ahal izanen da. Hiruhilekoa amaitutakoan hasiko da zenbatzen 48 eguneko epea.

Kontratuen zenbatekoa Europar Batasuneko gutxienezko zenbatekotik beherakoa bada eta esparru-akordio edo erosketa sistema dinamiko baten babesean esleitzen badira, ez da esleipenaren publizitatea egin beharrik izanen, baldin eta aukeratutako kontratatariak nortzuk diren jakinarazteko iragarkia argitaratu bada.

2. Europar Batasuneko gutxienezko gorako zenbatekoa duten kontratuen esleipenak edo esparru-akordioaren lizitazioaren emaitzak Europar

Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eredu ofizialei jarraituz, artikulua honetako 1. idatzatzen ezarritako epean.

Europar Batasuneko gutxienezko gorako zenbatekoa duten kontratuak aurretiaz egindako esparru-akordioan oinarrituta badaude, ez da publizitate egin behar izanen.

3. Foru lege honen II. B eranskineko zerrendan dauden laguntza kontratuen zenbatekoa Europar Batasuneko gutxienezko gorakoa denean, haien esleipenaren berri igorriko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera, eredu ofizialei jarraituz, eta informazio hori argitaratu nahi den ala ez adieraziko da.

4. Balio zenbatetsia Europar Batasuneko gutxienezko gorakoa duten kontratuetan, eta lizitazio iragarkia salbuetsita badago, kontratazio organoaren irizpideekin bat, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzen, foru lege honetan aurreikusten diren salbuespen-kasuetako batean dagoelako, esleipenak Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko "alde aurreko borondatezko gardentasuneko" iragarki baten xede izanen dira, zeina eredu ofizialen arabera egiten baita, eta esleipenak 15 egun naturaleko etenaldia izanen du iragarkia argitaratzen den egunetik hasita, ekiditeko, era horretan, kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezten den kasurako, foru lege honen 126. artikuluan aurreikusitako zehapena, erabateko deuseztasuna alegia.

5. Kontratazio organoak erabakitzen duenean kontratu bat aldatzea edota kontratu gehigarriak edo osagarriak esleitzea, erabaki hori, betiere, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da; jasota agertuko dira erabakia justifikatzen duten zirkunstantziak, irismena eta zenbatekoa, ahalmen hori egoki erabiltzen dela ziurtatzeko.

Era berean, erabaki hori onartuak izan ziren lizitatuzaileei jakinaraziko zaie, eta, gainera, informazio osagarria ere emanen zaie, lizitatuzaileei aukera emanen diena, kasua bada, aldatetaren erabakiaren kontra aski oinarritutako errekurtsioa jartzeko, baldin eta legezko eskakizunak ez badira bete.

6. Era berean, behin kontratu nagusia eta osagarriak amaituta, hurrengo datuak Interneten argitaratuko dira; ahal dela, erakunde kontratatzailearen webgunean: lizitazio prezioa, kontratu-exekuziorako epea, lizitatuzaileen kopurua eta izenak, esleipen-hartzailearen izena, esleipenaren prezioa, lizitazio-prezioarekiko beheratze portzentajea, kontratuak izandako aldatetako kopurua eta horien zenbatekoa, amaierako likidazioaren prezioa, eta zer ehunekotan desbide-

ratu den likidazio prezioa lizitazio prezioetik. Jarraian, datu berak erantsiko dira, baina kontratu osagarri buruzkoak."

21. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 105. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

"105. artikulua. Administrazio kontratua aldatzea.

1. Kontratu behin burututa, kontratazio organoak aldatetarako egin ahalko ditu hura osatzen duten prestazioetan soilik horretarako interes publikoko arrazoiak badaude, eta beharrezko egiten dituen kausa objektiboari erantzuteko ezinbestekoak direnak baizik ez du egiten.

2. Kontratuak aldatu ahalko dira, betiere aldatetarako kontratuaren funtsezko edukari eragiten ez badio, eta prestazioak hasierako proiektutik edo kontratutik bereizteak kalte larriak eragiten ez badizkio interes publikoari, kasu haueetan:

a) Lizitazio agiritan edo iragarkian aldatetarako aukera aurreikusirik badago.

Aukera hori argi, zehatz eta nahasbiderik gabe azalduta egon behar da, azalduta zein inguruabar behar diren aukeraz baliatzeko, modu objektiboan egiaztatuzko moduko inguruabarrak izanik. Era berean, erabaki ahalko diren aldatetaren norainokoa eta mugak zehaztuko dira, espresuki adierazita gehienez ere kontratuaren esleipen prezioaren zer ehunekori eragin ahal dion.

Kasu honetan, agirian adieraziko da halaber kontratua aldatzeko erabiliko den prozedura, aldatetarako hurrengo artikuluetan jasotako ez beste izapide gehigarrien bat behar duenean. Bestela, aldatetara aipatutako artikuluetan aurreikusitako moduan izapidetuko da.

b) Aldaketaren beharra behar bezala justifikaturik dagoenean, entitate esleitzaileraren arduratsu baten zuzenbide ustekabekoak diren inguruabarrak daudelako.

Gainerako aldatetarako funtsezkoen kalifikazioa izanen dute eta esleipen berritzaletatik hartuko dira.

3. Aldaketa guztien zenbatekoa, batera, ez da kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 20tik gorakoa izanen.

4. Kontratu ezin izanen da aldatu kasu haueetan:

a) Aldaketaren xedea denean kontratistak kontratua exekutatzeko egindako akatsak edo horien ondorioak zuzentzea, kontratuaren betebeharrak edo kontratistaren erantzukizuna eskatuz eta betez konpondu daitezkeenean.

b) Hasierako kontratuan edo proiektuan ez dauden obrak, laguntzak edo hornidurak izanik, bereizirik baliatu daitezkeenean edo lan osagarriak kontratatzeko 73. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenean.

5. Aurreko eskakizunak betetzen dituzten eta kontratuan ezarritako unitateak gehitzea, gutxitzea, kentzea edo ordezteak dakarten aldaketak nahitaez onartu beharko ditu kontratistak, betiere ordezpena kontratuko unitateen artean egiten bada. Unitateak kendu edo murrizten direnean kontratistak ez du eskubiderik izan inolako kalte-ordainik eskatzeko.

6. Herri lanen emakidarako eta zerbitzuen emakidarako kontratuak aldaketek artikulua honetan xedatutakoari jarraituko diote, haiei buruzko arau berariazkoen aplikazioa galarazi gabe. Herri lanen emakidarako kontratuan aldaketak egiten badira obrak egiten ari diren bitartean, aldaketa horiek obra kontraturako aurreikusitakoari lotuko zaizkio.

22. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 106. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“106. artikulua. Prezioak finkatzea kontratua unitate berriak sartuz aldatzen denean.

1. Obra kontratuatan egiten den aldaketa unitate berriak sartzeko denean, alegia, kontratuan egon ez diren unitateak edo ezaugarri oso desberdinak dituztenak gehitzen badira, Administrazioaren eta kontratistaren arteko negoziatioaren bidez finkatu dira prezioak. Adostasunik lortu ezean, kontratistak Kontratazio Publikorako Batzordeari arbitrajea eskatu ahal izanen dio prezioak finkatzeko, edo bestela unitate berrien exekuzioari uko egin ahalko dio.

Kontratistak unitate berrien exekuzioari uko eginez gero, Administrazioak haien exekuzioa lizitatu ahal izanen du Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatioaren bidez, 73.1.c) artikulua babesean.

2. Obra kontratuatan ez da beharrezkoa izan aldaketa espediente bat izapidetzea unitate berriak sartzeko kontratazio organoak xedatu denean esleipenaren ebazpenean kudeaketa unitateari kreditu orokorra ematea, kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 10ekoa gehienez, betiere ehuneko hori aurreikusirik badago administrazio klausula partikularren agirian eta kontratuaren balio zenbatetsian sartu baldin bada, foru lege honen 24. artikuluaekin bat.

Kreditu orokor hori erabili ahal izateko beharrezkoa izanen da zuzendaritza fakultatiboak txostena ematea, kontratistaren adostasunarekin. Kontu-hartzailetza eskuordeak eta kontratua kudeatzen duen unitatea bere menpean duen zerbitzuko zuzendariak txosten hori berretsi beharko dute.

Kreditu orokor horren aplikazioa ziurtagiri edo ordainketa partzialetan eta kontratuaren amaiera-ko ziurtagirian sartuko da besterik gabe.

Hala ere, geroago kontratuaren aldaketa izapidetu beharra badago, aurreko aldaketa horiek aldaketa espedientean sartu beharko dira.

3. Hornidura eta laguntza kontratuatan, aldaketa egiten bada kontratuan ez dauden edo ezaugarri oso desberdinak dituzten unitate berriak sartzeko, prezioak negoziatio prozesu batean finkatu beharko dira. Administrazioa eta kontratista ados jarri ezean, Administrazioak unitate berri horiek lizitatu ahal izanen ditu Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatioaren bidez, 73.1.c) artikulua babesean.

Hala ere, prozedura hori ezin izanen da erabili, baldin eta segidako aldaketen zenbatekoa hasierako kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 20 baino handiagoa bada.”

23. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 108. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“108. artikulua. Aldaketa espedienterik behar ez duten unitate-aldaketak.

Administrazio klausula partikularren agirian hala aurreikusirik dagoen kasuetan, eta kontratuaren balio zenbatetsian kontuan hartu bada, egiaz exekutatu unitateen kopurua obra proiektuan edo hasierako kontratuan aurreikusitakoena baino handiagoa denean, besterik gabe sartuko dira kontratuaren egiaztagiri edo ordainketa partzialetan eta amaierako egiaztagirian, betiere, gastuaren igoera ez bada administrazio klausulen agirian adierazitako portzentajea baino handiagoa; portzentajea hori ez da izan kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 10etik gorakoa.

Hala ere, exekutaturiko unitateen gehikuntzaren ondoren aldaketaren bat izapidetu beharra baldin badago, gehikuntza hori ere aldaketa espedientean sartu beharko da.

Edozein kasutan ere, unitate kopuruaren aldaketak egiten duten zenbatekoa eta kontratuaren aldaketak egiten dutena, batuta, ez dira administrazio klausulen agirian adierazitako gehieneko portzentajea baino handiagoak izanen; portzentaje hori ez da inola ere izan kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 20tik gorakoa.”

24. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 114. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“114. artikulua. Ordaintzeko epea eta berandutza-korrituak.

1. Administrazioak hogeita hamar egun naturaleko epean ordaindu beharko du kontratuaren prezioa, eta epe hori kontatzen hasiko da kontratazio organo eskudunaren erregistroan jasotzen denean dagokion faktura edo agiri baliokidea, frogatzen duena kontratua osorik edo partzialki egin dela. Obra kontratuetan, epe hori obra ziurtagiriak ematen direnetik hasiko da kontatzen.

Zalantzak bada faktura edo ordainketa-eskaera baliokidea jaso den data, ordaintzeko epea 30 egun naturalekoa izanen da, ondasunak jaso diren egunetik edo zerbitzuak eman diren egunetik kontatzen hasita.

Zordunak faktura edo ordainketa-eskaera baliokidea jasotzen badu ondasunak edo zerbitzuak baino lehenago, ordaintzeko epea 30 egun naturalekoa izanen da, ondasunak jaso diren egunetik edo zerbitzuak eman diren egunetik kontatzen hasita.

Zordunak faktura edo ordainketa-eskaera baliokidea jasotzen badu 122.2 artikuluan araututako harrera- edo adostasun-egintza baino lehen edo egintza horrekin batera, ordaintzeko epea 30 egun naturalekoa izanen da, egintza hori izan denetik kontatzen hasita. Egintza hori ez balitz ezarritako epean eginen Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, joko da epearen azken egunean egin dela.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen epeak 60 egun naturalekoak izanen dira, osasun-laguntzako zerbitzuak eman eta horretarako onartuak dauden entitate publikoen kasuan.

3. Epe horiek ordainketarik egin gabe iraganez gero, zorrak berandutza-korrituak sortuko ditu, ohartarazpen edo errekerimendurik egin beharrik izan gabe. Haien zenbatekoa izanen da kasuan kasuko seihilekoaren lehen egun naturalaren aurretik Europako Banku Zentralak birfinantzaketarako egin duen azken eragiketa nagusian aplikatutako korritu tasa gehi ehuneko zortzi puntu, salbu eta kontratua arautzeko baldintzetan tasa handiago ezartzen denean. Obra kontratuetan, ordea, berandutzarik izanez gero, berandutza-korrituak kalkulatzeko hasierako eguna hau izanen da: obra ziurtagiriak eman ondoko hogeita hamargarren egun naturala.

4. Ordainketaren berandutza lau hilabetetik gorakoa bada, kontratistak kontratua betetzea eten

ahal izanen du, eta Administrazioari eman beharko dio horren berri hilabete lehenagotik, eten horren ondorioz sor daitezkeen eskubideak aitortzearen ondorioetarako, foru lege honetan ezarritako moduan.

5. Ordainketaren berandutza zortzi hilabetetik gorakoa bada, kontratistak eskubidea izanen du, halaber, kontratua suntsiarazi eta horren ondorioz eragiten zaizkion kalteen ordaina jasotzeko.

6. Berandutza-korrituak exiji daitezkeen kasuetan, kontratistak, gainera, 40 euroko kopuru finko bat kobratzeko eskubidea izanen du, izan dituen kobrantza-kostuen ordainetan, eta, gainera, 40 euro baino handiagoko kobrantza-kostu guztiengatik ordain arrazoizko bat ere bai, egiaztatzen badu kostu horiek izan dituela Administrazioari egotz dakiokeen ordainketa-berandutzagatik.

7. Behin 1. idatz-zatiak aipatzen duen epea pasatuta, kontratistek idatziz erreklamatzeko ahalgo diote Administrazio kontratatzaileari bete dezala ordainketa-betebeharra, eta, kasua bada, berandutza-korrituak ere erreklamatzeko ahalgo dizkiote. Hilabete pasatu eta Administrazioak ez badu erantzun, ulertuko da aitortu dela gaindituta dagoela ordainketaren epemuga; interesdunek, horrenbestez, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzen ahalgo dute Administrazioaren jarduterik ezaren aurka, eta, kautela-neurri gisa, zorraren berehalako ordainketa eskatzen ahalgo dute.”

25. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 122.2. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“122. artikulua. Kontratuak betetzea eta harre-
ra.

2. Edozein modutan, kontratua bete dela egiaztatzeko, Administrazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat eginen du, kontratuaren xedea burutzen edo entrega egiten denetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean gehie-
nez ere. Obra kontratuetan eta herri lanen emakidako kontratuetan, administrazio klausula partikularren agiriak epe hori luzatu ahalgo du obrak amaitu eta are 30 egun geroagora arte.”

26. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 124. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“124. artikulua. Administrazio kontratuak suntsiarazteko arrazoiak.

1.i) (KENDUTA)

2. i) Kontratua automatikoki suntsituko da, baldin eta kontratu-aldaketek, nahiz eta hurrenez hurrengoak izan, bakarka edo denek batera goranzko zein beheranzko aldaketak eragiten badituzte kontratuaren prezioan, eta gorabehera horiek kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 20a baino handiagoak badira, balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe.”

27. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 126. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“126. artikulua. Baliogabetasunaren arrazoiak.

1. Administrazioak izenpetutako kontratuen baliogabetasunaren berariazko arrazoiak dira hurrengo idatz-zatietan aipatzen direnak.

2. Honakoak dira administrazio zuzenbideko deuseztasun kausak:

a) Administrazio prozedurari buruzko legerian ezarritako deuseztasun kausa orokorrak.

b) Esleipenaren unean krediturik ez egotea edo aski ez izatea, kasuan kasuko administrazio publikoari aplikatu beharreko aurrekontu arauetan ezarritakoaren arabera, larrialdiko prozeduretan izan ezik.

c) Esleipen-hartzaileak foru lege honetan adierazitako kausaren bat izatea lizitazioetik baztertuta izateko.

d) Kontratatik kaudimen ekonomiko eta finantzariozko eta gaitasun tekniko edo profesionalik ez izatea, hori behar bezala egiaztatzen denean.

e) Kontratu baten esleipena alde aurreko lizitazio iragarkirik gabe egitea, iragarkia aginduzkoa denean foru lege honetako arauekin bat.

f) Kontratua formalizatzea foru lege honen 93.2 artikuluan ezartzen den esleipen-etenaldia hautsiz, edo esleipenaren kontra kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat izapidetzen ari delarik.

3. Administrazio zuzenbideko deuseztagarritasun kausak dira foru lege honetan xedatutakoaren eta gainerako antolamendu juridikoaren kontrako gainerako arau-hausteak.

4. Kontratatik gaitasun juridikorik edo jarduteko gaitasunik ez izatea eta kontratazio administrazioan kontratuen baliogabetasuna dakarten gainerako arrazoiak, zuzenbide zibilean onartutakoak, antolamendu zibilean ezarritako baldintzei eta akzioak erabiltzeko epeei lotuko zaizkie, baina haiek baliarazteko prozeduran arau izanen da administrazio egintzen eta kontratuen baliogabetasunari buruz xedatutakoa.”

28. artikulua. Aldatu egin da Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 133.1 artikulua. Honako testua izanen du:

“1. Proiektua eta obra batera kontratatzen badira, enpresaburuak obraren proiektua aurkeztuko du, Administrazioak aurreproiektua edo horren pareko agiria egin ondoren. Interes publikoko arrazoi justifikatuak egonez gero, Administrazioak zilegi izanen du proiektuak bete beharko dituen oinarri teknikoak egitera mugatzea. Kontratazio horiek salbuespenezkoak izanen dira, eta kasutan soilik egiten ahalko dira: a) arrazoi teknikoak direla-eta, kontratista, ezinbestez, obren azterlanei lotu beharra dagoenean; b) obren tamaina edo zailtasun tekniko bereziak direla-eta, enpresaren baliabideen eta berezkoa duen gaitasun teknikoaren bidez soluzioak eman behar zaizkienean.”

29. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 144. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“144. artikulua. Emakida kontratuaren bidez egiten diren herri lanen finantzaketa.

1. Emakidadunak osorik edo zati batean finantzatzeko dituen emakidaren xede diren herri lanak, eta betiere bere gain hartuko du arriskua, egindako inbertsioaren arabera.

2. Emakidadunak finantzaketa pribatua erabili ahal izanen du kontratuko betebeharrak betetzeko. Horretarako, mailegu edo kredituak kontratatu ahal izanen ditu kreditu entitateekin, indarra duen antolamendu juridikoaren arabera. Kontratu horiek sinatu eta hilabeteko epean kontratazio organoari jakinarazi beharko zaizkie.

Halaber, emakida-hartzaileak beste finantzabide pribatu batzuk erabili ahal izanen ditu, kontratazio organoak baimena emanaz gero.

3. Errentagarritasun ekonomiko edo sozialeko arrazoiak daudenean, edo emakidaren xede den lanaren xede publikoa edo interes orokorrak eragindako eskakizun bereziak daudenean, Administrazioak baliabide publikoak jarri ahalko ditu finantzaketarako, betiere hala zehaztu bada administrazio klausulen agirian eta horien zenbatekoa kontuan hartu bada lizitazioaren iragarkian adierazitako balio zenbatetsian; era guztietara, emakida hartzaileak arriskua bere gain hartzeko printzipioa errespetatu beharko da.

4. Emakida-emaileaz gain, beste administrazio publiko batzuek ere ekarpenak egin ahal izanen dituzte emakidaren xede den herri lanaren erakuntza finantzatzeko, kasuan kasuko hitzarmenean ezartzen den moduan, eta beste erakunde nazional edo nazioarteko batzuek ere finantzaketan parte hartu ahal izanen dute.”

30. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 162. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“162. artikulua. Herri lanaren aldaketa.

1. Foru lege honetan aurreikusitako moduan, Administrazioak herri lana aldatzea edo handitzea erabaki ahal izanen du, bai eta emakidaren xedearekin zuzeneko zerikusia duten obra osagarriak egitea ere, emakidak indarrean dirauen bitartean. Behar izanez gero, ekonomia eta finantza plana berrikusi egingen da inguruabar berriei egokitzeko.

2. Aldaketak emakidaren oreka ekonomikoari eragiten badio, 157. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Beren ezaugarri fisiko eta ekonomikoak direla-eta ustiapen berezia ahalbidetzen duten aldaketen kasuan, beste lizitazio bat egingen da horiek egiteko eta ustiatzeko”

31. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 183. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“183. artikulua. Proiektuen lehiaketa

1. Plan edo proiektu bereziak egiteko, nagusiki lurralde antolamenduaren, hirigintzaren, arkitekturen, ingeniariaren eta datu-prozesatzearen arloetan, Administrazioak proiektuen lehiaketa erabiliko du, zeinaren ezaugarri baita proiektuen lehiaketako parte-hartzaileekin loturarik ez duten pertsona fisikoek bakarrik osatutako epaimahai batek esku hartzen duela.

2. Lehiaketaren aurretik, kontratazio organoak lehiaketa egiteko arauak onetsiko ditu eta deialdiaren iragarkia argitaratuko du. Iragarkia zer agerkaritan argitaratu behar den zehazteko, parte-hartzaileentzat ezarri ahal diren sari edo ordainketen balioari erreparatuko zaio. Lehiaketaren ondoriozko kontratuen zenbatekoa konputatuko da, halakorik bada.

Lehiaketaren zenbatekoa, BEZa aparte, 200.000 eurokoa edo gehiagokoa denean, iragarkia argitaratuko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, ezarritako eredu ofizialei jarraituz.

3. Lehiaketa irekia egin ahal izanen da, edo bestela aukeraketa egin ahal izanen da aurretiaz. Lehiaketaren aurretik hautagaiak aukeratzea erabakitzen bada, aukeratzeko irizpideek argiak, objektiboak eta bereizkeriarik gabekoak izan beharko dute. Lehiaketa egiteko arauetan ezarriko da zenbat hautagairi egingen zaien gonbita proiektua aurkezteko. Bost puntuaziorik onenak lortzen dituzten hautagaiak gonbidatu beharko dira, gutxienez ere.

4. Proiektuak izenik gabe aurkeztuko dira eta aurkezleen izenak ez dira jakinen harik eta epaimahaiak bere irizpena edo erabakia aditzera eman arte.

5. Epaimahaiak askatasun osoz emanen ditu bere erabaki edo irizpenak, eta lehiaketari buruzko iragarkian adierazitako irizpideak baizik ez du erabiliko. Hala ere, sektoreko araudiari jarraituz berriazko lanbide kualifikazioa eskatzen bada, epaimahaiko kideen herenak, gutxienez, lanbide kualifikazio hori edo baliokidea eduki beharko du.

Epaimahaiko kideak administrazio prozedura arautzen duen legerian ezarritako abstentzio edo errefusatzeko kausei lotuta egonen dira.

6. Epaimahaiak lehiaketaren emaitzari buruzko txostena emanen du, kide guztiek sinatua. Bertan adieraziko da proiektu bakoitzak lehiaketako arauekin bat etorritik duen sailkapena, eta behar diren ohar eta gainerako argibideak erantsiko dira.

7. Proiektuen lehiaketa baten irabazleari kontratuak esleitzeko, lehiaketaren jarraipena baldin badira eta baldintzetan aurreikusirik badago, Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatua erabili ahal izanen da. Irabazle bat baino gehiago egonez gero, guztiei egin beharko zaie negoziazioan parte hartzeko gonbita”

32. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 184. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“184. artikulua. Aplikazio-eremua.

Obra, hornidura eta laguntza kontratuak eta herri lan eta zerbitzuen emakidak 2.1 artikuluko e) eta f) letretan aipatutako pertsona eta entitateek egiten dituztenean, liburu honetako xedapenen arabera prestatu eta esleitu beharko dira, eta haien ondorioei eta amaierari dagokienez, zuzenbide zibileko edo merkataritza zuzenbideko xedapenek arautuko dituzte, ezertan galarazi gabe I. liburuan kontratu-aldaketetarako ezarritako araubidea eta hurrengo liburuan erreklamazioetarako ezarritakoa”

33. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 195. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“195. artikulua. Dokumentazioa zuzentzea eta eskaintzak argitzea.

1. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala frogatzeko dokumentazioan zerbait falta bada edo zalantzarik sortarazten bada, lizitatuzaileei aurkeztu dituzten ziur-

tagiri eta agiriak zuzendu edo osatzeko eskatuko zaie. Horretarako bost eguneko epea emanen zaie gutxienez.

Baldintza arautzaileetan ezarri ahal izanen da hasieran dokumentazioa aurkeztu ordez lizitatzai-learen erantzukizuneko aitortpena aurkez dadila, foru lege honetan kontratazioarako ezarritako baldintzak betetzen dituela dioena. Halakoetan, esleipen proposamena bere alde izanen duen lizitatzai-leak gehienez zazpi eguneko epea izanen du, inguruabar hori jakinarazten zaionetik, eskatzen diren agiriak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko. Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, lizitatzai-lea prozeduratik kanpo geldituko da, eta lizitazioarako jarritako bermeak kenduko zaizkio edo kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik.

2. Esleipen irizpidea eskaintzarik onuragarriena hartzea duten prozeduretan, eskaintzaren bat iluna edo zehaztugabea dela iritziz gero, argibide osagarriak eskatu ahal izanen dira, betiere lizitatzai-leen arteko tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuz. Argibide osagarriek ezin izanen dute aldarazi aurkeztutako eskaintza. Argibide osagarriak emateko epea gutxienez bost egunekoa izanen da.

Ezin izanen da argibide osagarririk eskatu eskaintako prezioari buruz, non ez den formula, ekuazio edo antzekoren bat erabiltzen prezioa adierazteko, halakoetan osagaiei buruzko argibideak eskatu ahal izanen baitira.”

34. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 200. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“200. artikulua. Hautagai eta lizitatzai-leei informazioa ematea esleipenaren gaineko erabakiaz.

1. Entitate kontratatzaileek hautagai eta lizitatzai-leei jakinaraziko dizkiete, lehenbailehen eta idatziz, lizitazio prozeduretan hartzen dituzten erabakiak, dagoeneko lizitatu den kontratuari uko egin izanaren arrazoiak barne direla.

2. Kontratuak esleitzeko erabakiaren ondorioak eten eginen dira ondoko arauetan ezarritako kasuetan:

a) Obra, hornidura eta laguntza kontratuetan, haien balio zenbatetsia Europar Batasuneko gutxienezko behera dagoelarik, 10 egun naturaleko epean esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita edo esleipena argitaratzen denetik hasita, halakorik egiten bada.

b) Obra, hornidura eta laguntza kontratuetan, haien balio zenbatetsia Europar Batasuneko gutxienezko gora dagoelarik, bai eta obra eta zerbitzu emakidetan ere, 15 egun naturaleko epean esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita, edo esleipena argitaratzen denetik hasita, halakorik egiten bada.

3. Esleipenaren gaineko erabakia hartu ondoren, 15 eguneko epean igorriko zaie lizitatzai-leei jakinarazpena, hautatutako eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak labor azalduko dituen, adierazirik, halaber, esleipen-hartzailearen izena edo esparru-akordiorako hautatutako enpresena, aurreko idatz-zatian aipatzen den etenaldia amaitzeko eguna eta kontratazio publikoaren arloan erreklamazio baterako behar diren datu guztiak, horrelakorik aurkeztu nahi izanez gero. Onartu ez diren lizitatzai-leen kasuan, ez onartzeko kausak ere adieraziko dira jakinarazpenean.

4. Aurretik Kontratazio Publikorako Batzordeak txostena eginda, jakinarazi gabe utzi ahal izanen dira kontratuen esleipenarekin, esparru-akordioekin edo erosketa sistema dinamikoetan parte hartzeko onarpenarekin zerikusia duten zenbait datu, baldin eta horien zabalkundea legeak aplikatzeko oztopo izan badaiteke, interes publikoaren kontrako izan badaiteke edo enpresen merkataritza-interes legitimoiei edo haien arteko lehia zintzoari kalte egin badiezaiekete.”

35. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 202. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“202. artikulua. Kontratuak formalizatzea.

1. Kontratuak 15 egun naturaleko epean formalizatuko dira, foru lege honen 200.2 artikuluan esleipenerako ezarritako etenaldiaren epea amaitzen den egunetik aurrera, salbu eta kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkeztu bada kontratuaren esleipenaren kontra, horrek ere esleipenaren etendura ekarriko baitu.

2. Kontratua formalizatu arte ezin izanen da kontratuaren exekuzioa hasi, ezertan ukatu gabe larrialdi kasuetako kontratazioetarako eta faktura izan ezik beste agiririk eskatzen ez den prozeduretarako aurreikusitakoa.”

36. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 206. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“206. artikulua. Kontratuen balio gabetasuna.

Zuzenbide zibilean edo merkataritza zuzenbidean ezarritako arrazoiek ekarriko dute liburu

honetan aipatzen diren kontratuen baliogabetasuna.

Kausa horiez gain, liburu honetan aipatzen diren kontratuak zuzenbide osoz deusezak izanen dira haiek prestatzeko egintzaren bat edo esleipen egintza halakoa bada, hurrengo arrazoietakoa baten bat tarteko:

a) Esleipen-hartzaileak foru lege honetan adierazitako kausaren bat izatea lizitazioetik baztertua izateko.

b) Kontratatik kaudimen ekonomiko eta finantzariorik eta gaitasun tekniko edo profesionalik ez izatea, hori behar bezala egiaztatzen denean.

c) Lizitazioan edo kontratuaren esleipenean publizitateari, lehiari eta gardentasunari buruzko arauak ez betetzea.

d) Kontratu baten esleipena egitea alde aurreko lizitazio iragarkirik gabe egitea, iragarkia aginduzkoa denean foru lege honetako arauekin bat.

e) Kontratua formalizatzea foru lege honen 200.2 artikuluan esleipenerako ezarritako etenaldia urratuz.

f) Kontratua formalizatzea esleipenaren gaineko ebazpenaren kontra kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat izapidetzen ari delarik.

Liburu honetan lizitazioaren edo kontratuaren esleipenaren egintzei dagokienez ezarritako gainerako arauak ez betetzeak haren deuseztagarritasuna ekarriko du?

37. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 208. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“208. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordea.

1. Kontratazio Publikorako Batzordea kide anitzeko organo bat da, bere eginkizunetan independentea eta ekonomiaren arloko eskumena duen departamentuari atxikia organikoki, foru lege honen 2. artikuluan aipatzen diren entitateen kontratazio publikoaren sistemaren jardunbidea egokia izatea zaintzeko zeregina betetzen duena.

2. Kontratazio Publikorako Batzordeko burua ekonomiaren arloko eskumena duen kontseilaria izanen da, eta bertako kide, berriz, foru lege honen menpeko administrazioen eta erakundeen ordezkariak, bai eta lizitazioetan esku hartzen duten enpresen eta profesionalen ordezkariak ere. Edonola ere, Batzordeko kideek kontratazio publikoaren arloan prestakuntza berezia izan beharko dute.

3. Kontratazio Publikorako Batzordeak Osoko Bilkura eta batzordeak izanen ditu bere jarduna betetzeko. Bertan, organo egonkor gisa, batzorde iraunkorra egonen da.

4. Kontratazio Publikorako Batzordeak eginkizun hauek ditu, besteak beste:

a) Txostenak egin eta, behar denean, kontratazio sistemaren alderdi administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak ukitzen dituzten arauak, neurriak edo jarraibideak proposatzea.

b) Esleipenerako irizpide eta baremoak prestatzea, foru lege honen menpeko pertsona eta entitateek erreferentzia gisa erabil ditzaten.

c) foru lege honen menpeko pertsona eta entitateentzat eta kontratazio publikoak ukitzen dituen enpresa- eta lanbide-erakundeentzat arlo horretako gaiari buruzko txostenak egitea, esku-hartzeko eskatzen zaionean.

d) Nafarroako Gobernuari proposatzea eredu normalizatuak, kontratuen prestaketari, esleipenari eta aldaketari buruzko agirienak, onets ditzan.

e) Txostenak ematea lizitazio baten emaitza argitaratu gabe uztearen bidez kotasunari buruz.

f) Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratazio Administrazioaren Aholku Batzordeari erregelamenduz ezarritako kontratuen gainean eman behar zaion informazio estatistikoa zentralizatzea, nazioarteko arauak betetzeko.

g) Nafarroako Kontratazioaren Ataria kudeatzea.

h) Prezioen ezarpenaren inguruko arbitrajeak ebaztea Administrazioaren obra kontratuetan.

i) Nafarroako Parlamentuan aurkeztea, horretarako zehazten den batzordean, urtealdiko txosten bat, zehaztuko dituen, batetik, zer esku-hartze izan dituen organo horrek, eta, bestetik, zer proposamen egiten dituen kontratazio-sistema efizienteragoa izan dadin eta, hala, zama administratiboak sinplifikatzeko.

j) Erregelamenduz ezartzen diren beste guztiak, Nafarroako Foru Komunitatean kontratazio publikoaren sistemak ongi funtzionatzeko behar direnak.

k) Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko kideen izendapena proposatzea Nafarroako Gobernuari.

5. Kontratazio Publikorako Batzordeak foru lege honen menpeko entitateentzako zuzeneko gomendioak edo gomendio orokorrak eman ahal izanen ditu, kontratazio publikoari edo kontratu jakinei

buruzko azterlanetatik ateratzen diren ondorioak guztientzat interesgarriak izanez gero.

6. Kontrataziorako Batzordearen osaketa, antolaketa eta jardunbidea, bai eta kideek jaso beharreko lansariak ere, halakorik bada, erregelamenduz garatuko dira.”

38. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari 208. bis artikulua gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“208. bis artikulua. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia.

1. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia eginkizunetan independentea eta organiko Kontratazio Publikoaren Batzordeari atxikia dagoen organo bat da; bere zeregina da zuzenbideari jarraikiz ebaztea kontratazio publikoaren arloko erreklamazioak, eta liburu honetan araututako kautelazko neurriak hartzea.

2. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak lehendakari bat eta beste bi kide izanen ditu, hirurak Foru Komunitateko Administrazioaren, Nafarroako toki entitateen edo foru lege honen menpeko beste entitate batzuen zerbitzuko jarduneko funtzionarioak, beren izendapenerako zuzenbideko lizentziaduna edo graduduna izatea eskatu bazitzaie; haien hautapena Nafarroako Gobernuak egingen du, Kontratazio Publikorako Batzordearen Osoko Bilkurak igorritako proposamenarekin bat, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren. Hautapena sei urterako izanen da, eta kideok aukera izanen dute berriz hautatuak izateko. Epe horretarako ordezkioak ere hautatu ahalko dira, kargua hutsik dagoenerako, edo titularrak ez dagoenerako edo gaixorik dagoen kasuetarako. Nafarroako Parlamentuari izendapenaren berri emanen zaio.

Auzitegiko buruak hamar urteko lanbide esperientzia izan beharko du gutxienez, eta prestakuntza berezia kontratazio publikoaren arloan. Auzitegiko buruak Kontratazio Publikorako Batzordearen Osoko Bilkurako sortzetiko kide izan beharko du. Kideek bost urte baino gehiagoz arituak beharko dute beren jardun profesionalean, eta prestakuntza berezia izan kontratazio publikoaren arloan.

3. Auzitegiko kideak independenteak eta aldaezinak izanen dira, eta ez zaie eragozpenik eraginen Auzitegian emandako iritzi edo erabakiengatik; arrazoi hauengatik baizik ez dira kargutik mugituko:

a) Zer agintalditarako izendatzen dituzten, hura amaitzeagatik.

b) Espainiako nazionalitatea edo funtzionario izaera galtzea.

c) Dimisioa ematea.

d) Eginkizunetan aritzeko gaitasun eza, izendatu ondotik sortua.

e) Betebeharrak larriki ez betetzea.

f) Askatasunaz gabetzeko zigorra jasotzea edo delitu batengatik lan edo kargu publikoan aritzeko desgaitze erabatekoa edo berezia.

b), d), e) eta f) letretan ezarritako arrazoiengatik Auzitegiko kide izateari uzteko, beharrezkoa izanen da Kontratazio Publikorako Batzordeak espedienteak izapidetzea, eta Nafarroako Gobernuari bere proposamen loteslea igortzea.

4. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko kideek batera beteko dituzte batzordeko zeregina eta Administrazioan duten lanpostua, eta erregelamenduz ezartzen diren dietak jasoko dituzte ordainetan, funtzionario diren aldetik dituzten lansariekin bateragarri direnak.

Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko kide izatea bateraezina izanen da honakoekin:

a) Nafarroako Administrazio Publikoetako aurrekontuetako funtsak erabiltzeko ahalmenak dituzten administrazio organoetako titular izatea.

b) Norbera edo beste norbait ordezkatzuz parte hartzea kontratazio publikoan.

c) Kontratu publikoen lizitatzaile edo esleipen-hartzaile diren enpresetan zuzendari, kudeatzaile, administratzaile, kontseilukide, bazkide kolektibo izatea, edo enpresetan horietan zuzeneko esku-hartzea dakarren beste edozein izaera edukitzea.

5. Abstentzio eta errekusatze kausak izanen dira oro har epaile eta magistratuentzat ezarritakoak eta administrazio prozeduraren legerian oro har ezarritakoak, aurrekoekin bateragarriak diren heinean.

Era berean, abstentzio edo errekusatze kausak izanen dira aurkaratutako kontratu publikoaren kudeaketan parte hartzea, kontratu publiko horretan aholkularitza juridikoa ematea, bai eta foru lege honen menpeko Nafarroako Foru Komunitateko erakundeei, Foru Komunitateko Administrazio departamentuei edo haren erakunde autonomoei edo Toki Administrazioentzako entitateei aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren burutza ere, aurkaratutako kontratuari buruzko txostena organo horri atxikitako langileek egina denean.

6. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren erabakiak eta ebazpenak bertan diren kideen gehiengoak hartu beharko ditu, biltzeko deialdia egin ondoren, eta idazkaria edo legez haren ordezkoa dena ere bertan dela, hizpi-dearekin, baina botorik gabe. Bozketan berdinketa gertatuz gero Auzitegiko buruak erabakiko du, bere kalitatezko botoarekin, edo haren eginkizunak betetzen dituenak. Kide guztiek dute boto partikularra egiteko eskubidea; idatziz arrazoituta, erabaki edo ebazpenei erantsiko zaie.

Idatz-zati honetan aurreikusirik ez dagoen guztian kide anitzeko organoak arautzen dituen administrazio arloko legeria aplikatuko da.

7. Kontratazio Publikorako Batzordeko idazkariak beteko ditu Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiako idazkari lanak.

Era berean, Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordeari laguntzeko administrazio unitateak laguntza tekniko eta administratiboa emanen dio Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari bere lanak betetzeko.”

39. artikulua. Kontratu Publikoek buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 210. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“210. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa.

1. Kontratu publiko baten lizitazioan eta esleipenean interesa duten enpresa eta profesionalak kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari aurkezten ahalko diote, foru lege honen menpeko entitate batek emandako izapide-egintzen edo behin betiko egintzen aurka, egintza horiek lizitaziotik baztertzen badituzte edo haien xede-ei kalte egiten badiete. Erreklamazio hori, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez, foru lege honetan aurreikusitako moduan egin beharko da. Ente instrumental batentzako enkargu baten lanak esleitzean interesa duten enpresek eta profesionalak ere erreklamazioa aurkeztu ahal izanen dute hori egiteko egintzen aurka.

2. Erreklamazioa aurkezteko epeak hauexek dira:

a) Hamar egun natural, lizitaziorako iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita, iragarki hori eta bertan ageri den dokumentazioa aurkaratzeko.

b) Hamar egun natural, aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, lizitatzailleek lizitazio eta esleipen egintzen kontrako errekurtsioa

aurkezteko. Lizitatzaille bat kanpoan uzteko egintza bat edo esleipena aurkaratzen denean, epea hasiko da foru lege honen 92.5 artikuluan eta 200. artikuluan 3. idatz-zatian ezartzen den aginduzko informazioa jakinarazi eta biharamunean.

c) Hogeita hamar egun natural, kontratuaren esleipena argitaratu eta biharamunetik hasita, lizitazio iragarkia argitaratzea aginduzkoa ez denean, edo ente instrumental bati enkargua egiteari buruzko iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. Arrazoi hauetako baten bat soilik hartu beharko da erreklamazioaren oinarritzat:

a) Esleipen-hartzaileak foru lege honetan adierazitako kausaren bat izatea lizitaziotik baztertua izateko.

b) Esleipendunak kaudimen ekonomiko eta finantzariorik eta gaitasun tekniko edo profesionalik ez izatea.

c) Lizitazioan edo kontratuaren esleipenean publikitateari, lehiari eta gardentasunari buruzko arauak ez betetzea; bereziki, finkatu eta aplikatutako esleipen irizpideak kontuan ez hartzea.

d) Bitarteko instrumental berekiei egindako enkarguak foru lege honetan agindutakoa urratuz.

4. Kontratu baten esleipena, esparru-akordio bat aurkaratzeak, edo ente instrumental bati egindako enkargu bat aurkaratzeak berarekin ekarriko du aurkaratutako egintza etenda gelditzea aurkeztutako erreklamazioaz Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak ebazpena eman arte.

5. Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren ebazpenek administrazio bidea amaitzen dute, eta ematen diren unetik dira ebazpenok exekutiboak eta lotesleak. Lizitazioa edo mandatua sustatzen duen entitateari dagokio haiek berehala exekutatzea.

6. Artikulu honetan aurreikusitako erreklamazioa aukerakoa eta ordezkoa izanen da. Ez du eragotziko beste organo batzuei beste arrazoi batzuetan oinarritutako erreklamazio edo errekurtsio gehiago aurkeztea.

Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa jarriz gero, ezin izanen da aldi berean arrazoi berean oinarritutako administrazio errekurtsio gehiagorik aurkeztu.

7. Titulu honetan aurreikusten ez den orotan, administrazio prozedura arautzen duten legeek errekurtsioei buruz xedatutakoa aplikatuko da.”

40. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 211. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“211. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Kontratu publiko baten lizitazioan eta esleipenean interesa dutenek Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari eskatu ahal izanen diote, gainera, aurreko artikuluan ezarritako epeetan, alegatutako arau-haustea zuzentzeko edo ukitutako interesei kalte gehiago ez eragiteko kautelazko neurriak har daitezela, esleipen prozeduran hartutako edozein erabaki edo prozedura bera etetea ere barne dela.

Erreklamazioa behar den epean aurkezten ez bada, eskaera indarrrik gabe geratuko da, bai eta kautelazko neurriak ere, halakorik bada.

2. Kautelazko neurriak eskatzeko idazkia, eskatzaileak bere eskaera oinarritzeko baliatzen dituen agiriak nahitaez erantsirik, telematikoki aurkeztuko da Nafarroako Kontratazioaren Atarian, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari zuzenduta. Erreklamazioa osagabea bada, bi egun balioduneko epea emanen da hura osatzeko.

Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak, kautelazko neurriaren eskaera jasozten duen egunean edo hura zuzentzen den egunean, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak administrazio espedientea edo kontratuaren dokumentazioa eskatuko dio ukitutako entitateari. Kontratazio organoak bi egun balioduneko epea izanen du hori aurkeztu eta egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko. Epe hori iraganik, eskatutako dokumentazioa aurkeztu zein ez, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak ebazpen arrazoitua emanen du bost egun balioduneko epean. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazi ezean, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, non ez den egintzaren bat edo lizitazio prozedura eteteko eskatzen; halakoetan, epearen barrenean ebazpenik jakinarazten ez bada, etenduraren eskaera onartu egin dela ulertuko da.

Idatz-zati honetan xedatutakoak ez du galaraziko esleipen egintza edo ente instrumental bati enkargua egitea besterik gabe etetea egintza horien aurka kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezten denean, foru lege honen 210.4 artikuluan adierazitakoarekin bat.

3. Kautelazko neurriak edozein unetan eten, aldatu edo errebokatzen ahalko dira, ofizios edo alderdi interesdunek eskatuta, horretarako oinarri hartuz gerora gertatu diren edo neurriak hartu zirenean ezagun ez ziren zirkunstantziak, salbu

eta foru lege honen 210.4 artikuluan adierazitako etenduran, kasu horretan xedapen horri berari jarraituko baitzaio. Ebazpen horren kontra ez da errekurtsorik onartuko, deusetan galarazi gabe bidezko diren errekurtsioak jarri ahal izatea prozedura nagusian ematen diren ebazpenen kontra.”

41. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 212. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“212. artikulua. Erreklamazioa izapidetzea.

1. Erreklamazioa bide telematikoa aurkeztuko da, Nafarroako Kontratazioaren Atarian, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari zuzendua, erregelamenduz zehazten diren baldintzak betez, 210.2 artikuluan ezarritako epean, eta helbide elektronikoa emanen da jakinarazpenak bidaltzeko.

Erreklamazioaren idazkiari erantsi beharko zaizkio eskatzaileak bere eskaera oinarritzeko baliatzen dituen agiri guztiak, bai eta aurkaratzearen xede den egintzaren jakinarazpenaren kopia bat ere.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, ukitutako entitateari jakinaraziko zaio erreklamazioa aurkeztu dela, jakinaren gainean jartzeaz beste ondoriorik gabe, izapidetzeko onartu zain dagoela ere adieraziz.

Erreklamazioa osagabea bada, bi egun balioduneko epea emanen da hura osatzeko. Erreklamazioa osatuta, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak, idazkariak proposatuta, hiru egun balioduneko epean emanen du izapidetzeko onartzeari buruzko bere ebazpena. Erreklamazioa ez onartzeko arrazoiak honakoak izanen dira:

- a) Epez kanpo aurkeztea.
- b) Erreklamazio-egileak legitimaziorik ez izatea.
- c) Eskabidearen akatsak ez zuzentzea.
- d) Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren eskumenekoa ez izatea.
- e) Erreklamazioak inolako funtsik ez izatea.

Erreklamazioa ez onartzeko ebazpena erreklamazio-egileari jakinaraziko zaio, eta administrazio bidea amaituko du.

3. Erreklamazioa izapidetzeko onartuz gero, onarpen ebazpena jakinarazi eta administrazio espedientea edo kontratuaren dokumentazioa

eskatuko zaio ukitutako entitateari. Jakinarazpenarekin batera erreklamazioaren kopia igorriko zaio.

Errekurtsoa zein entitateari egin zaion, entitate horrek, hiru egun balioduneko epean eta bide telematikoen bidez, administrazio espedientearen edo kontratuaren dokumentazioa igorri beharko du, erreklamazioari emandako erantzunarekin batera.

Administrazio espedientearen edo kontratuaren dokumentazioa jasorik, erreklamazioa gainerako interesatuei jakinaraziko zaie, hiru egun balioduneko epean bidezkotzat jotzen dituzten alegazio edo frogak aurkez ditzaten. Hori dela eta, interesdunen posta elektronikoko helbiderik ez badute, nahikoa izanen da alegazioetarako epea Nafarroako Kontratazioaren Atarian ezartzea.”

42. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 213. artikulua aldatu da, eta testu berri hau izanen du aurrerantzean:

“213. artikulua. Erreklamazioa ebatzea.

1. Erreklamazioari buruzko ebazpena hogeita hiru egun balioduneko epean emanen da, hura aurkezten denetik hasita. Epe hori iragan eta ebazpenik jakinarazi ez bada, ulertuko da erreklamazioa ezetsi dela.

2. Prozedura amaitzen duen ebazpena eskararen arabera izanen da, eta bertan, behar bezala arrazoituta, esleipen prozeduran legez kanpo hartu diren erabakien deuseztatzeari buruz ebatziko da, bai eta bereizkeriazko ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzarioak honakoetatik kentzeari buruz: lizitazio iragarkitik, aldiroko iragarkietatik, administrazio klausulen eta agindu tekniko partikularren agirietatik, kontratua arautzeko baldintzetatik edo lizitazioarekin edo esleipenarekin zerikusia duten gainerako agirietatik.”

43. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen hamahirugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioen araubidea Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari aplikatzea.

Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak erregelamenduz hautatuko dute edo errekurtsioak ebazteko organo bat ezarri, Kontseiluaren 89/665/EE eta 92/13/EEE zuzentarauak aldatu zituen 2007ko abenduaren 11ko 2007/66/CE Zuzentarauaren eskakizunak beteko dituen kontratu publikoaren esleipenaren arloko errekurtsio-prozeduren eraginkortasuna hobetzeari

dagokionez, edo beren lizitazioetan egiten diren erreklamazioak ebazteko eskaera egin Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiari.”

44. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari hamalagarren xedapen gehigarria erantsen zaio. Testu hau izanen du:

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Segurtasunaren arloko kontratu publikoak.

Foru lege honen xedapenen menpeko entitateek segurtasun publikoaren arloan izenpetzen dituzten kontratuak –bereziki, Nafarroako Foru Komunitatearen barruan pertsonak eta ondasunak babestu eta segurtasun publikoa eta herritarren ordena zaindu eta mantentzeko jardura guztiek– foru lege honen aginduei jarraituko diete.”

45. artikulua. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari hamabosgarren xedapen gehigarria erantsen zaio. Testu hau izanen du:

“Kontratazio organoak erabakitzen duenean kontratu bat aldatzea edota kontratu gehigarriak edo osagarriak esleitzea, erabaki hori, betiere, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da; jasota agertuko dira erabakia justifikatzen duten zirkunstantziak, irismena eta zenbatekoa, ahalmen hori egoki erabiltzen dela ziurtatzeko. Era berean, behin kontratu nagusia eta osagarriak amaituta, hurrengo datuak Interneten argitaratuko dira; ahal dela, erakunde kontratatzailearen webgunean: lizitazio prezioa, kontratu-exekuziorako epea, lizitazioaren kopurua eta izenak, esleipen-hartzailearen izena, esleipenaren prezioa, lizitazio-prezioarekiko beharrezko-portzentajea, kontratuak izandako aldaketa-kopurua eta horien zenbatekoa, amaierako likidazioaren prezioa, eta zer ehuneko-tan desbideratu den likidazio prezioa lizitazio prezioetik. Jarraian, datu berak erantsiko dira, baina kontratu osagarriari buruzkoak.

Era berean, erabaki hori onartuak izan ziren lizitazioarekin jakinaraziko zaie, eta, gainera, informazio osagarria ere emanen zaie, lizitazioarekin aukera emanen diona, kasua bada, aldaketaren erabakiaren kontra aski oinarritutako errekurtsioa jartzeko, baldin eta legezko eskakizunak ez badira bete.”

Xedapen gehigarri bakarra. Energia-zerbitzuak emateko kontratua.

Foru lege honen babesean egiten diren kontratuak, hain zuzen ere obra, hornidura eta laguntza kontratu-modalitateek eta modalitate mistoek, energia-zerbitzuak emateko direnean, 14 urteko iraupena izanen dute gehienez ere, kontratua bai-

mentzeko eskumena duen organoak hala erabakita.

Kontratuaren urteko guztizko zenbatekoa, agiritan egonen baita aurreikusia, izanez gero azken bi urteetako batez besteko gastuaren berdina edo txikiagoa, batuta direla kontratazioaren xede den kontsumoa eta zerbitzuaren mantentze-lanak, inbertsioa kontabilizatuko da harreman kontraktuala amaitzen deneko ekitaldian, duen hondar-balioarekin, eta une horretan sartuko da ondasun-inbentario publikoan.

Lehen xedapen iragankorra. Ente instrumentalei egiten zaizkien enkarguak.

Bitarteko berekitzat hartzen diren ente instrumentalei egindako enkarguek aurreko araudiari jarraituko diote, baldin eta foru lege honek indarra hartu baino lehenagoak badira, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian egon beharko dute argitaratuta foru lege honek indarra hartu ondoko 48 egunetan.

Bigarren xedapen iragankorra. Aurreko araudiarekin bat esleitutako kontratuak.

Foru lege honek indarra hartu baino lehenago onetsitako kontratazio-espeditenteen ondoriozko kontratuek, edo, halakorik behar ez denetan, baldintza agiriak foru lege hau indarrean sartu aurretik publikizatuak dituzten kontratuek, aurreko araudiari jarraituko diote, nahiz eta kontratuon esleipenaren aurkaratze-araubidea foru lege honek ezarritakoa izanen den.

Hirugarren xedapen iragankorra. Erreklamazioen araubidea.

Foru lege honek indarra hartzen duenean izapidetzen ari diren erreklamazioak aurreko araudiaren xedatutakoaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

Laugarren xedapen iragankorra.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 97.5 eta 97.6 artikuluetan aurreikusita dagoen kontratu-aldaketen publikizitatea, Nafarroako Kontratazioaren Ataria horretarako egokitzen ez den arte, bitarteko telematikoen bidez eginen da, entitate kontratatzailearen webgunean.

Azken xedapenetan lehena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-xedapen guztiak emateko, eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, berriz, Kontratazio Publikorako Batzordeko kideen eta Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko kideen dietak finkatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduen 153. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiago osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak emandako testuarekin, Foru Komunitateko toki entitateetako kontratazio publikoa arautzen du.

Foru araua onetsi ondoren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko abenduaren 11ko 2007/66/EE Zuzentaraua onetsi zen, Kontseiluaren 89/665/EEE eta 92/13/EEE zuzentzarauak aldatzen zituena kontratu publikoen esleipenaren arloko errekurtso-prozeduren eraginkortasuna hobetzeari dagokionez. Zuzentzari horren funtsezko helburuak dira kontratuen legez kanpoko adjudikazio zuzenaren kontra borroka egitea eta bermeak indartzea errekurtso-prozeduretan.

Zuzentzari horren aginduen transposizioa egiteko, beharrezkoa da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzea, Nafarroako toki entitateetan kontratuen arloan aplikatzeko den araudia bat etor dadin zuzentzari aurreikusitakoarekin.

Bestetik, beharrezkotzat jotzen da are gehiago homogeneizatzea kontratazio publikoaren arloko

foru arauak, toki entitateen sektorean aplikatzekoak diren berezitasunak desberdintasunen ingurukoak izan daitezzen; horrela, segurtasun juridiko handiagoa lortuko da, eskatu ere hori eskatu izan baitute, behin eta berriz, kontratu publikoen lizitazioan eta esleipenean interesa duten enpresek eta profesionalak.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzen da, atal hauetan zehazten den moduan:

Bat. 169. artikuluko 2. puntuari testu berria ematen zaio. Honela geldituko da:

“169.2. artikulua.

2. Zur eta egurretarako produktuen aprobetxamendurako esparru-akordioak arautuko dira Nafarroako toki entitateen ondasunak arautzen dituen araudia aldatuz, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen, eta indarrak gabe gelditzen da kontratu publikoei buruzko foru lege-dira egiten zen legezko igorpena, legedi hori baitzen ordezkua zena zur eta egurretarako produktuen salmentari dagokionez”

Bi. 224. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“224. artikulua.

1. Nafarroako toki entitateek egindako kontratuek Nafarroako administrazio publikoei aplikatzeko zaien legezko araubidea bete beharko dute eta foru lege honetan agertzen diren berezitasunak izanen dituzte.

2. Obra, hornidura nahiz laguntza kontratuak eta herri-lanen nahiz zerbitzuen kontzesioak Nafarroako toki entitateen menpeko edo horiei lotutako gainerako pertsona eta entitateek eginez gero, edo haien dirulaguntzarekin eginez gero, eta kontratu publikoei buruzko foru legedia bete behar badute, subjektu eta entitate horien kontratu publikoetarako legeria horretan xedatutakoarekin bat prestatu eta esleitu dira, foru lege honek dituen berezitasunekin bat.

3. Nafarroako toki entitateen edo horiei lotutako entitateen zerbitzu publiko bat kudeatzeko kontratuei zerbitzuen emakida kontratuetarako ezarrita-

ko araubide juridikoa aplikatuko zaie, baldin eta kontratistari eman beharreko ordainsaria ez bada zerbitzuaren ustiapen ekonomikoa edo ustiapenarekin batera prezio bat ordaintzea, ondoko salbuespenak salbuespen:

a) Luzapenak barne, epea ez da hamar urtetik gorakoa izanen, hitzarmenetan izan ezik.

b) Europar Batasuneko publizitatearen betebeharrak aplikatuko da, baldin eta, zerbitzu motaren arabera betebeharrak hori beharrezkoa izaki, kontratuaren balio zenbatetsiak Europar Batasuneko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badu.

4. Toki entitateak edo hari lotutako entitateek kontratu publikoei buruzko foru legediko xedapenekin bat hautatuko dituzte bazkide pribatua edo bazkide pribatuak, zerbitzu publiko bat merkataritza-sozietate baten edo kooperatiba baten bidez kudeatzeko, baldin eta kapitala hein batean soilik bada toki entitatearena.

5. Toki entitateei aplikatuko zaie beren ente instrumentalei enkarguak egiteko araubidea, zeina Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 8. artikuluan aurreikusita baitago, baina horrek ez du galarazten foru lege horren 192. artikuluan eta hurrengoetan zerbitzu publikoak kudeatzeko aurreikusitako moduek ere indarra izatea?

Hiru. 225. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“225. artikulua.

2.000 biztanle baino gutxiago dituzten Nafarroako toki entitateetan, hautapen bidezko tokiko karguen bateraezintasunaren ondorio bakarria abstentzio-arrazoi bat egotea izanen da, baldin eta kontratazio prozeduran eska daitezkeen tramite bakarrak badira alde aurreko kreditu erreserba egitea, aplikatzekoa den aurrekontu arloko legeriarekin bat, eta kasuan kasuko faktura aurkeztea?”

Lau. 229. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“229. artikulua.

1. Toki entitateek esleipen irizpideak aplikatu ondok sortzen diren berdinketak ebazteko irizpideak ezarri ahalko dituzte, oro har nahiz kontratu bakoitzerako. Irizpide horiek aplikatuta berdinketak jarraituz gero, zozketaz ebatziko da. Irizpiderik ezarri ezean, berriz, kontratu publikoei buruzko foru legediak finkatutako irizpideekin bat ebatziko da berdinketa.

2. Prozedura negoziatu batean, kontratuaren funtsezko baldintzen agiriak ondokoak arautuko ditu gutxienez ere: kontratuaren xedea, zenbate-

koa eta epea eta gauzatzeko beharrezkoak diren zehaztasun teknikoak; kontratazio organoaren, kontratua kudeatzeko ardura duen unitatearen eta, halakorik baldin bada, Kontratazio Mahaiaren identifikazioa; gutxieneko kaudimen-baldintzak; esleipen irizpideak; ordaintzeko modua eta, kasua bada, prezioak berraztertze modua.

3. Prezioan soilik oinarrituta esleitu behar diren prozedura irekiak ahoz egiten ahalko dira, lizitazioaren hitzezko proposamen eta posturen bidez, herriko ohitura eta usadioei jarraituz.

Aipatu kontratazioetan, kontratu publikoei buruzko foru legedian jasotzen diren betekizunak aplikatuko dira. Proposamen ekonomikoak idatziz aurkeztu ordez, hitzezko proposamen eta posturak eginen dira jendaurreko ekitaldian.

4. Ondare- edo herri-ondasunak aprobetxatu edo besterentzeko ahozko enkanteetan parte hartu ahal izateko, lizitazioarekin bete behar duten baldintza bakarra da administrazio klausula partikularren orrian eskatzen den behin-behineko bermea gordailuan uztea.

Adjudikatu aitzin, administrazio klausula partikularren orrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Esleipen proposamena irabazten duen lizitazioarekin, baldintza horiek bete ezik, behin-behineko bermea bahituko zaio eta gainera esleipenaren aldeagatik administrazio lizitazioarekin egindako kalte eta galeren ardura hartuko du bere gain. Enkanteetako esleipen egintzaren emaitza berehala jarriko da entitateko iragarki-oholean.

5. Ondare- edo herri-ondasunak aprobetxatu edo besterentzeko enkanteak prozedura irekiaren bidez eginez gero, esleipenaren proposamena jasotzen duen eskaintza, gutxienez zenbateko osoaren seitek bat gehituz hobetu ahalko da. Sesta emateko, arau hauei jarraituko zaie:

a) Enkanterako iragarritako ordutik hasi eta ondoko sei egunetan egin beharko da eta seigarren eguneko ordu berean amaituko, jaiegunak ere barne direla.

b) Enkantean lizitazioarekin izan ez bada ere, legezko ahalmena duen edonork egin ahalko du; betiere, aurrez behin-behineko bermea jarri badu.

c) Idatziz nahiz idazkariaren aurrean hitzez egin ahalko da. Edozein modutan ere, idazkariak eginbide bat idatziko du, aurkeztu den eguna eta ordua adieraziko duena, eta interesdunak sinatu eginen du.

d) Sesta ematea amaitu ondoren, horretarako jarritako epea bukatu eta ondoren lau egun baliodun izanen dira beste enkante bat egiteko. Toki entitateak esleipenaren proposamenaren hartzaileari bere postura seiren bat hobetua izan dela jakinarazi beharko dio eta behin betiko enkantea noiz eginen den espresuki adierazi.

e) Behin betiko enkantea egiteko, egindako hobekuntzatik ateratakoa hartuko da tasazio prezioztat, eta kasuan kasuko iragarkia jarriko iragarki oholean, hurrengo enkantea zein egun eta ordutan izanen den gutxienez bi egun natural aurretik zehaztuta. Hasierakoaren modu berean eginen da enkantea. Lizitatzailerik ez badago, kontratua sesta-emaleari esleidi dakiola proposatuko da.

f) Enkante berriari buruzko akta idatziko da eta artikuluko honetako 4. idatz-zatikoko azken lerrokadan aurreikusitako bezalaxe iragarriko da emaitza.

g) Esleipenaren proposamenaren ondorengo hiru egun baliodunetan edonork erreklamazioa egin ahalko du idatziz, lizitatzailerik izan gabe ere, lizitazioaren tramitazio akatsen eta, bereziki, lizitatzailerik gaitasun juridikoaren kontra, eta bere iritziz esleipena egiteko bidezko den ebazpena eman dadila eskatu ahalko du.

6. Lizitazioaren eta adjudikazioaren iragarkiak kasuan kasuko toki entitatearen iragarki oholean jarriko dira, kontratu publikoari buruzko foru legediarekin bat jarri beharreko hedabideetan jartzeaz gain. Iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian edo Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko dira epeak kontatzen, kontratu publikoari buruzko foru legeriarekin bat.

Bost. 230. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“230. artikulua.

Administrazio klausula partikularren orriak ezarri beharko du betebeharreari aurre egiteko bermea jarri beharra kontratua formalizatu baino lehen,

baldin eta, obra kontratuen kasuan, zenbatekoa 300.000 eurotik gorakoa (BEZa kanpo) bada, eta hornidura eta laguntza kontratuen kasuan, berriz, zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa (BEZa kanpo) bada, eta betiere, kontratuaren izaera eta zenbatekoa zein ere diren, esleipen-hartzaileak kontratu publikoari buruzko foru legediaren arabera ohi baino eskaintza baxuagotzat jo daitekeena aurkeztu badu; halakoetan, esleipenaren prezioaren ehuneko 50eko bermea jarri ahalko da, eta hori ez da eragozpen izanen zenbateko hori kontratua jaso aurretik itzuli edo hein batean ezeztatu dadin, kontratua kudeatzeko ardura duen unitateak txostena egin ondoren.

Toki entitateen kontratuetan lizitatu edo betebeharrak betetze aldera exijitzen diren bermeak entitate kontratatzailearen diruzaintzan jarri beharko dira.”

Sei. 232. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“232. artikulua.

Kontratu publikoen lizitazioan eta esleipenean interesa duten enpresek eta profesionalak kaute-lazko neurriak hartzeko eskatu ahal izanen dute, bai eta kontratazio publikoaren arloko erreklamazioak aurkezteko ere kontratu publikoari buruzko foru legeetan aurreikusitako moduan.”

Xedapen iragankorra. Aurreko araudiarekin bat esleitutako kontratuak.

Foru lege honek indarra hartzen duenean dagoeneko esleituta dauden kontratuek aurreko araudiari jarraituko diote, baina horien esleipena aurkaratzeko araubidea foru lege honetan xedatutakoa izanen da.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840. lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840. lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Andosillako Udalak duen 6. poligonoko 840. lurzatiaren parteari dagozkion herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena

ZIOEN AZALPENA

Andosillako Udalak eskatu du herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoaren deklarazioa eta haien desafektazioa, ondoren 142.895,53 metro koadroekin truke egiteko, Santa Cruz baselizaren inguruan eremu bat sortzeko; izan ere garrantzi handiko tokia da Andosillako bizilagunentzat, bertan erromesaldiak eta erromeriak ospatzen baitira. Etorkizunean, gainera, turismoaren eta ingurumenaren arloko jarduketak egiteko asmoa dago.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Andosillako Udalak eskatzen duen desafektazioaren eremuak lurzati txikiaren mugak gainditzen dituzenez, foru lege bidez onetsi behar da.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Andosillako Udalaren herrilurretako 84.698 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten da. Eremu hori 6. poligonoko 840. lurzatiaren puska bati dagokio. Lur horiek herri ondasuntzat joko dira foru lege honen 2. artikuluko baldintzetan trukea egin arte.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Andosillako Udalari baimena ematen zaio aurreko artikuluan deskribatutako lurren trukea egiteko, honakoekin: 142.895,53 metro koadro, María Jesús Pardo Sádaba andrearen jabetzakokak, 1. poligonoko 1345. lurzatia (92.054 metro koadro), 1347. lurzatia (20.841 metro koadro) eta 1348. lurzatia (30.000 metro koadro) hartzen dituztenak. Xedea da lurra eskuratzea Santa Cruz ermitaren inguruetan, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Trukea egiteko itunaren klausula batek xedatu dezala lurra herri ondarera itzuliko direla baldin eta desafektatzeraz bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzulketa klausula hori jaso dadila kontratuak formalizatzeko Jabetza Erregistroan inskribatzen diren agiri publikoetan, Andosillako Udalak 2012ko uztailaren 28an onetsitako baldintza agirian agertzen den bezala.

c) Andosillako Udalak herrilurretako 84.698 metro koadro desafektatzeko 2011ko uztailaren 28an onetsi zuen baldintza agirian adierazitako estipulazioak bete daitezela. Eremu hori Andosillako katastroko 6. poligonoko 840. lurzatiaren puska bati dagokio.

d) Bereziki, María Jesús Pardo Sádaba andreak hartutako konpromisoa, bazkalekuaren jabea den aldetik, 1. poligonoko 1345. eta 1347. lurzatiaren eta 1348. lurzatiaren puska baten gainean, honetarako: baimena emateko eraikinak edo instalazioak egiteko; landaketa berriak errespetatzeko edo ondoko eremuen hobekuntza baimentzeko; ermitan ospakizun ofizialak egin aurreko bi hilabeteetan, azientariek bazkatzera ez botatzeko erromerietara joaten direnek erabiltzen dituzten tokietan; eta, azkenik, ahaleginak egiteko, urte guztian, azientak kalterik sor ez dezan instalazioetan edo baldintza higienikoetan.

e) Konpromiso hori islatu beharko da trukea formalizatzen duten eta Jabetzaren Erregistroan inskribatuko duten agiri publikoetan.

Azken xedapenetan lehena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau aplikatu eta garatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako beka enbargaezinak deklaratzeko dituenak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako beka enbargaezinak deklaratzeko dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako beka enbargaezinak deklaratzeko dituenak

ZIOEN AZALPENAK

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak ezartzen du gizarte zerbitzuak eskuratzea unibertsala dela. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ere unibertsaltasun bera aitortzen die mendetasun egoeran dauden pertsona guztiei, diskriminaziorik gabe eta egiazko berdintasun baldintzetan. Bi lege horiek egungo gizartearen beharrezko erantzuten diete, eta Ongizatearen Estatuaren laugarren zutabea sendotzen dute hartara. Halatan, Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Legeko 19. eta 20. artikuluetan aurreikusitako gizarte zerbitzuen zorroak ezartzen ditu herritarrek zer prestaziotarako eskubidea duten, halako moduan non eskubide subjektibo hori administrazioei exijitu ahal izanen baitzaie.

Prozedura Zibilarren Legeko 605. artikulua ezartzen du ezin direla inola ere enbargatu legezko xedapenen batek esanbidez enbargaezintzat jotzen dituen ondasunak. 607. artikulua ezartzen du enbargaezina dela zenbateko jakin bat gaintzen ez duen soldata, pentsioa, ordainsaria edo parekoa. Are arrazoi handiagoarekin, pentsatu behar da kontzeptu horien baliokidea dela bermatutako

prestazio publiko bat, ezaugarri dituen oinarriko beharrezko beka, gizarte-bazterketan dauden pertsonen edo familien gizarteratzea sustatzea izatera osagarriekin eta indarreko legedian ezarritako bestelako baliabide eta prestazioen osagarri, edo laguntzea pertsonak gutxienezko batzuk izan ditzan bere autonomia pertsonala edo oinarriko herritar-eskubideak garatzeko.

Administrazio publikoen egitekoa da herritarren oinarriko beharrezko beka –arestian azaldutakoak, esaterako– beka, funts publikoen ekarpen zuzen eta finalista eginez, eta horien xedea eta helburua ziurtatuz. Gizarteratze errentaren zenbatekoak “enbargagarriak” dira gaur egun, eta horrek zeharo desitxuratu du izatera finalista, eta gerta daiteke aurrekontu eta finantza arloko ahalegin publikoak, izatera sozial hutsekoak, hirugarrenen asmoak beka azkenean, nahiz eta hirugarren horiek ez izan aipatu laguntzen xede.

Beste horrenbeste esan daiteke Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako prestazio bermatuei edo ikasketeko beka eta laguntzei buruz. Kasu horietan guztietan izanen litzateke aplikatzeko foru lege hau.

Artikulu bakarra.

1. Oinarriko errenta eta gizarteratze errenta enbargaezinak izanen dira ondorio hauetarako, kasu guztietan eta prozedura zibilar buruzko legedian ezarritako zenbatekoetan eta araubidean.

2. Enbargaezinak izanen dira, halaber, gizarte zerbitzu orokorren zorroan sartutako prestazio ekonomiko bermatuak, baldin eta pertsona fisiko edo familien bizi-beharrik asetzeko badira.

3. Ikasketak ez-unibertsitarioak egiteko beka eta laguntzak, bai eta Nafarroako Foru Komunitateak bere eskumenak erabiliz ezarritako dituen graduko nahiz graduondoko ikasketak unibertsitarioetarako beka ere, enbargaezinak izanen dira.

Azken xedapena.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean, eta enbargo-prozedurei aplikatzekoa izanen da, baldin eta, legea indarrean sartzen denean, oraindik ez bada erabaki edo eman ebazpenik

oinarrizko errenta edo gizarteratze errenta enbargatzeko, edo gizarte zerbitzuen zorroan sartutako gizarte prestazio bermatu bat enbargatzeko bere onuradunei, edo mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile ez profesionalentzako laguntzak eta ikasteko laguntzak edo bekak enbargatzeko.

Foru Legea, elikagaien hondakinen erabilerari buruzkoa.**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, elikagaien hondakinen erabilerari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, elikagaien hondakinen erabilerari buruzkoa**ZIOEN AZALPENA**

Europar Batzordeak argitara emandako azterlan baten arabera, Europar Batasuneko kide diren 27 estatueta elikagaien hondakinen produkzioa urtero ia 89 milioi tonara iristen da. Horrek esan nahi du herritar bakoitzeko 179 kilo sortzen direla, kontuan izan gabe nekazaritza jatorriko elikagaien hondakinak –produktio prozesuan sortzen direnak– edo itsasora botatzen diren arrain-bazterkinak. Neurririk hartzen ez bada, kantitatea 126 milioi tonara irits liteke 2020an. Hondakinen zati handi bat zor zaio elikagaien iraungipen-daten edo gomendatutako kontsumo-daten kudeaketa okerrari; izan ere, jotzen da botatzen diren elikagaien ehuneko 20 baztertzen dela iraungipen data dela-eta dauden zalan-tzengatik. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren txosten baten arabera, elikagaien banaketarako kate gehien-gehienek (ehuneko 78) iraungitzeko zorian dauden elikagaiak botatzen dituzte, eta kate horien ehuneko 20k baizik ez diote ematen elikagai banku bati edo GKE bati, aprobetxa ditzaten.

Europako Parlamentuak 2012ko urtarrilaren 19an erabakia hartu zuen, elikagaien alferrik galtzea saihesteko moduari buruz: Europar Batasunean elikadura-katearen efizientzia hobetzeko

estrategiak. Erabaki horretan, besteak beste, proposatu du 2014a “elikagaiak alferrik galtzearen aurkako europar urtea” izenda dadila.

Errealitate horrek kontraste dramatikoak egiten du Europar Batasunean 79 milioi pertsona pobrezia-aren atalasetik behera bizitzearekin. Hau da, herritarren ehuneko 15 baino gehiagok bizitokia duten herrialdeko batez besteko errentaren ehuneko 60tik beherako errenta jasotzen dute; eta horietatik, 16 milioik ongintza-erakundeek elikadura-laguntza jasotzen dute. Halaber, Nafarroan milaka pertsonak pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzen dituzte, egungo krisialdi sozial eta ekonomikoak areagotuak. Pobretzeak jada ez du soilik eragiten tradizionalak estatistika hori oinarritzen zuten sektoreetan; izan ere, egunero mauka-mauka harrapatzen ditu milaka pertsona, krisialdiak eta politika publiko egokien ezak gizarte bazterketara bultzatutakoak, zeinei botere publikoek biziraupenerako gutxieneko maila bat ez baitiete bermatzen. Cáritasek berriki ohartarazi du 120.000 pertsona, Nafarroako biztanleen ehuneko 18, pobrezia arriskuan daudela.

Elikagaien bankuek eta beste gizarte ekimen batzuek funtsezko lana egiten dute, baina ez dira iristen arazo osoari aurre egitera. Beharrezkoa da botere publikoek neurriak har ditzatela herritarrengan kontsumo-ohitura arazoizkoak sustatzeko, baita elikagaien banaketa-kateetan jokabide egokiak bultzatzeko ere, saiheste alde-ara elikagaiek zaborretan buka dezatela, hondakin bihurturik. Horri dagokionez, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, 15. artikuluan, ezartzen du administrazio publikoek, dagozkien eskumenen esparruetan, 2013ko abenduaren 12a baino lehen hondakinen prebentziorako programak onetsi beharko dituztela, haien bidez 2020rako sortutako hondakinen pisua ehuneko 10 gutxitzeko, 2010ean sortutakoen pisuarekin alderatu-

ta. Programa horietan, besteak beste, berariaz aurreikusiko da elikagaien hondakinen sorrerari aurre egin dakiola, hain zuzen ere elikagaiak alferrik gal daitezten saihestera eta kontsumo arduratsua sustatzera bideratutako neurrien bitartez; esate baterako: saltokiekiko akordioak, iraungitako elikagaiak ahal den guztian gutxitzeko; kontsumitzaileentzako jarraibideak ezartzea; jatetxeak eta jantokia duten jarduerak egitea soberako elikagaiak aprobetxatzeko; egoera onean dauden soberakinak aprobetxatzeko bideak sortzea gizarte ekimeneen bitartez, herri jantokien bitartez, elikagaien bankuen bitartez, eta abar. Bidezkoa da, halaber, Nafarroako antolamendu juridikoan helburu horiek berak sustatzera bideratutako xedapenak sartzera.

1. artikulua.

1. Nafarroako Merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzen da, ondoko idatz-zatietan adierazitakoei dagokienez:

2. 16. artikuluari j) letra berria gehitzea. Honako testua izanen du:

“j) Jarduerak sortutako hondakinen kudeaketa egokia, hondakin horiek gutxitzea eta, bereziki, elikagaien hondakinak aprobetxatzera bideratutako neurriekin.”

3. 21. artikuluko 3. idatz-zatiari e) bis letra berria gehituko zaio, ondoko edukiarekin:

“e bis) Jarduerak sortutako hondakinak kudeatzeko plana, haiek gutxitzea eta zuzen tratatzera bideratua. Elikagai-hondakinik sortuz gero, haiek aprobetxatzeko plana, Nafarroako elikagaien bankuarekiko nahiz antzeko bestelako erakundeekiko akordioen bitartez.”

4. 39. bis artikulua gehituko da. Honako testua izanen du:

“39. bis artikulua. Hondakinen kudeaketa.

Hondakinen arloan aplikatzekoa den araudia-ren arabera, txikizkako saltzaileek behar diren neurriak hartu beharko dituzte beren jarduerak sortutako hondakinak ahal den guztian gutxitzeko eta haiei tratamendu egokia emateko. Bereziki, elikagaien hondakinen kasuan, gomendatzen da aprobetxagarriak direnak bereiztea eta Nafarroako elikagaien bankuari eta antzeko beste erakunde batzuei ematea.”

2. artikulua.

1. Nafarroako Gobernuak, 2013ko abenduaren 12a baino lehen, elikagaien soberakinak banatzeari buruzko jokabide egokien kode bat landuko du, ukitutako eragile guztien parte-hartzearekin, honako helburu hauekin:

a) Kontsumorako gai diren baina merkaturatzeko gai ez diren elikagaien soberakinak gutxitzeko prozesuen efizientzia hobetzea.

b) Neurriak ezartzea produktu horien soberakinak gizarte erakundeei eskuratzeko eta premia handienak dituzten pertsonen artean banatzeko.

c) Elikadura-kate osoa kontzientziazten laguntzea, ekoizleengandik hasi eta kontsumitzaileenganaino, kontsumo arduratsua egiteko beharrari buruz eta elikagaien eralgiketa gutxitzeari buruz.

2. Nafarroako Gobernuak, tokiko gizarte zerbitzuen bitartez, koordinatuko du, Nafarroako elikagaien bankuarekin lan egiten duten laguntzako entitateen sarearekin eta antzeko beste erakunde batzuekin, behar diren neurriak hartzea baliabiderik ez duten pertsona eta familia guztiei beren garapen normalerako behar adinako oinarritzko elikadura bermatzeko.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Foru Lege bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri

Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta bete-beharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak 4. artikuluan ezartzen ditu Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsonen eskubideak. 11. artikuluan ezartzen duenez, "osasun-laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen ditu. Halaber, Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen ditu, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera". Osasun-laguntza publiko eta unibertsal hori orobat ziurtatzen zaie adingabeei eta haurdun dauden emakumeei.

Foru lege horrek indargabetu egin zituen Nafarroako Foru Komunitatean onetsitako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak; besteak beste, eta Nafarroako herrietan bizi diren pertsoneri dagokienez, azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitatean osasun-laguntza publikoa ororenganatzeko araubideko prestazioak eskuratzeko prozedura eta baldintzak.

Geroago, Osasun Sistema Nazionalaren iraungarritasuna ziurtatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua onetsi da. Estatuko xedapen horrek "aseguratu" eta "onuradun" kontzeptuak ezartzen ditu, Espainian

Osasun Sistema Nazionalaren bidez eta funts publikoen kargura osasun-laguntza jasotzeko irizpide subjektibo gisa; halatan, aseguratu edo onuradun izaera aitortu gabe dutenek hitzarmen berezi bat sinatetik heldu den kuota edo kontraprestazio bat ordaindu behar dute, osasun-laguntza publikoaren prestazioa lortu ahal izateko.

Errege lege-dekretu horri men eginez, baina azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 4. eta 11. artikuluko indardunetan xedatutakoa aintzat hartu gabe, Nafarroako Gobernuak urriaren 31ko 117/2012 Foru Dekretua onetsi du, aldatze aldera azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitatean osasun-laguntza publikoa ororenganatzeko araubideko prestazioak eskuratzeko prozedura eta baldintzak.

Foru dekretu berriarekin eta bertan jasotako aurreikuspenekin segurtasun gabezia juridikoa sortzen da, eta pertsona askori eragiten dio egoera horrek, bai Nafarroako administrazio-egoera dutenei, bai etorkinei. Aldi berean, foru dekretu batek ezarriko duenera atzeratu dira foru legearen aplikazioa eta aurreikuspenak – arau-hierarkia eta legezkotasun printzipioa aldatuta, hartara–, eta lehentasun osoa eman nahi izan zaio, foru lege baten gainetik, Estatuko arau bati, aintzat hartu gabe Nafarroako Parlamentuak azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen bidez eta horren aurreko foru legeen bidez erakutsitako borondatea, zeinen bidez aitortu baita Nafarroan bizi den orok eskubidea duela osasun-laguntza publikoa, unibertsal eta doakoa jasotzeko.

Bere foru araubidearekin bat, Nafarroak eskumen zabala du barne osasunaren arloan, eta Estatuak osasunaren arloan ematen dituen arauak osa ditzake, bere ekonomia- eta finantza-araubidea aplikatuz. Hori guztia jasota dago Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan.

Horrekin guztiarekin batera, Konstituzio Auzitegia argia izan da horri dagokionez, eta bere doktrinan onartu du autonomia erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen arabera, arauak eman ditzaketela osasunaren arloan, Estatuak bere oinarriko araudiaren bidez guztientzat ezarritakoa bakoitzak bere lurralde eremuan hobetze aldera, Konstituzioaren eta beren estatutuen ara-

bera arloan dituzten kudeaketa- nahiz finantzaketa- eskumenekin bat.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak behin eta berriro erakutsitako borondatea berriz ere jasoz –borondate hori jaso zen, aurrena, osasun-sistema publikoaren osasun-laguntza Foru Komunitatean bizi diren etorkin guztiengana zabaldu zuen maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legean; hurrena, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean, zeinaren bidez nabarmen hobetu nahi baita Estatuaren osasun-sistema publikoaren bidez guztientzat ezarritakoa, orain apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretuan jasotakoa–, eta Nafarroan aldarrikatu, onartu eta ziurtatze aldera ezen Nafarroan bizi den orok eskubidea duela, zein ere den bere legegahiz administrazio-egoera, Nafarroako Foru Komunitatearen osasun-sistema publikoan ematen den osasun-laguntza publikoa doan jasotzeko, haren funts publikoen kargura, foru lege hau onetsi beharra dago.

Bestalde, bermatu beharra dago Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 18/2012 Foru Legean berriki ezarritako farmazia-prestazio osagarriak jasotzeko eskubidea foru legea indarrean sartzan denetik berehala eta zuzenean aplikatzekoa eta baliagarria izanen dela, eta, hortaz, osasun-administrazioak nahitaez bete beharrekoa, direnak direla ere foru legea garatze aldera beharrezkoak diren erregelamendu-arauak.

Artikulu bakarra.

1. Nafarroan bizilekua duten pertsona guztiek dute eskubidea Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura doan jasotzeko Nafarroako Foru Komunitateko osasun-sistema publikoak emandako osasun-laguntza oinarritzakoa edo espezializatua, zein ere den haien adina, nazionalitatea edo legegahiz administrazio-egoera.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorio-etarako, “bizilekua” izanen da kreditatzea, zuzenbidean onartutako edozein modutan, erroldatzea barne, pertsona horren bizilekua Nafarroako udal batean dagoela, inolako denbora-eperik kontuan hartu gabe.

3. Bizilekua kreditatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, osasun-administrazioak doan eta luzamendutan ibili gabe emanen die identifikazio-dokumentazio bat 1. idatz-zatian aipatzen diren pertsonen, Nafarroan osasun-laguntza publikoa

orenganatzeko araubidean sartzeko, baldin eta Osasun Sistema Nazionaleko Norbanako Osasun Txartela ez badute.

4. Foru Komunitateko osasun-sistema publikoak emandako osasun-laguntza, 1. idatz-zatian aipatutako pertsonen dagokienez, Osasun Sistema Nazionaleko Norbanako Osasun Txartela dutenei emandako bera izanen da, eta Nafarroako Osasun Administrazioak ezin izanen du inolako diskriminaziorik egin.

5. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoak ez du aldatzen Estatuko Funtzionario Zibilen mutualitateek, Mutualitate Orokor Judizialak edo Indar Armatuaren Gizarte Institutuak kudeatutako Gizarte Segurantzaren araubide berezietako titularren edo onuradunen osasun laguntzaren araubidea. Pertsona horiek beraien berariazko araubide juridikoa mantenduko dute, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko 3.6 artikularekin bat.

Xedapen gehigarria.

Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 18/2012 Foru Legeko arauak indarrean sartzetik aitzina Osasun Departamentuak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean aplikatzekoak dira, direnak direla ere foru legea garatze aldera beharrezkoak diren erregelamendu-arauak. Horrenbestez, foru lege honetako 2. artikuluan aipatutako pertsonen eskubidea dute foru legea indarrean sartzan den egunetik bertatik farmazia-prestazio osagarriak berehala jasotzeko, foru legeko 5. artikuluan adierazten den moduan.

Xedapen indargabetzailea.

Espresuki indargabeturik gelditzen dira azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitatean osasun laguntza publikoa orenganatzeko araubideko prestazioak eskuratzeko prozedura eta baldintzak, horren aldaketak eta hori garatzeko xedapenak, eta, halaber, foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra, eta ondorioak izanen ditu, betiere, 2012ko apirilaren 24tik aitzina.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen baitira erne jarrai dezaten Tabako-produktuak ekoizteari, aurkezteari eta saltzeari buruzko Europako Batzordearen 2001/37/CE Zuzentarauaren aldaketaren bilakaera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira erne jarrai dezaten Tabako-produktuak ekoizteari, aurkezteari eta saltzeari buruzko Europako Batzordearen 2001/37/CE Zuzentarauaren aldaketaren bilakaera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu erne jarrai dezaten 2001/37/CE Zuzentarauaren aldaketaren bilakaera, sektorearen interesak bermatze aldera eta aldaketa horiek enpleguan izan litzaketen eragin negatiboak saiheste aldera.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ustelkeria-egintza oro arbuizten baitu.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak ustelkeria-egintza oro arbuizten du.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere mespretxua eta gaitzespena erakusten dizkie beren egoeratik probetxua atera eta beraien aurrean babesgabe dauden herritarren diru publiko zein pribatuarekin irabaziak lortze aldera ustelkeriazko jokabideak aurrera eraman dituzten edo eramaten ari diren pertsona, entitate, alderdi edo enpresa publiko

nahiz pribatu guztiei, zeinek horretarako baliatu baitituzte beren kargu publikoak, botere politiko nahiz ekonomikoa, botere horretan daudenekiko hurbiltasuna, informazio pribilegiatua edo beste edozein arrazoi.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du edozein ustelkeria delitu gogortasun askoz handiagoz tratatu behar dela, eta Zigor Kodean tratamendu zorrotzagoa eduki behar duela.

3. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du ustelkeria eta funtzionario-eroskeria delituen tipoa zabaltzea tipifikatutako egitateekin irabaziak lortu dituzten pertsona guztiei –hau da, onurak izan dituzten usteltzaile eta ustelei–, zuzeneko erantzukizun ekonomikoak nahiz erantzukizun subsidiarioak barne.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du eta eskatzen du gardentasunik handiena egon dadila Administrazioarekin harremanak dituzten erakunde publiko eta pribatu guztietan, bai ustelkeria gara daitekeen egoerak edo espazioak saihesteko, bai ustelkeria garatu izanaren aztarnak egon daitezkeen egoerak argitu eta ebazteko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean lege proiektu bat aurkez dezan, non jasoko baitira gure erkidegoan indarra duen legediaren barruan behar diren aldaketa guztiak, halako jokabideengatik

zigortuak izan diren pertsona, alderdi, sindikatu, entitate edo enpresek ezin izan dezaten laguntza publikorik jaso edo kontratu, hitzarmen edo bestelako harremanik izan Nafarroako administrazio publikoekin.

6. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin daitezen alderdi politikoentzako dohaintzak debekatze aldera.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez diezaien dietarik ordaindu bilkuretara joaten ez diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetako kideei.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaien dietarik ordaindu bilkuretara joaten ez diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetako kideei”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta sozietate publiko atxikietako administrazio kontseiluetan, dieten ordainketa, bilkuretara joaten ez diren kideen kasuan”

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Departamentuak bere gain har dezan Tuterako Reina Sofia Ospitalearen eta Iruñeko ospitaleen arteko garraioaren kostua, eta zerbitzu hori Nafarroa osora hedada dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak bere gain har dezan Tuterako Reina Sofia Ospitalearen eta Iruñeko ospitaleen arteko garraioaren kostua, eta zerbitzu hori Nafarroa osora hedada dadin.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuak bere gain har dezan, oso-osorik, ospitalearteko garraioaren zerbitzuaren kostua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestazio eta zerbitzu hori Nafarroa osora hedada dadin, berdintasuna eta ekitatea ziurtatze aldera, eta berdintasun baldintzetan babeste aldera osasun-zerbitzua eskuratzeko eta proba medikoak egiteko eskubidea, gaitxoaren bizilekua zein ere den.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egokitu dezan Nafarroako legedia abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate eta segurtasun baldintzak ezartzen dira.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egokitu dezan Nafarroako legedia abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate eta segurtasun baldintzak ezartzen dira.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egokitu dezan Nafarroako legedia abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuan ezarritakora. Errege Dekretu horren bidez arautzen dira transplanteetarako giza organoak lortzeko jarduketak, haien erabilera klinikoa eta lurralde-koordinazioa, eta kalitate- eta segurtasun-betekizunak ezartzen dira.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erraztasunak eman ditzan “Traperos de Emaús” Fundazioak hondakinak berrerabilerarako prestatzeko proiektua abian jar dezan Berriozarren, eta, horretarako, aurreikustako inbertsioen finantzaketa erraztu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztasunak eman ditzan “Traperos de Emaús” Fundazioak hondakinak berrerabilerarako prestatzeko proiektua abian jar dezan Berriozarren, eta, horretarako, aurreikustako inbertsioen finantzaketa erraztu dezan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Foru Komunitatearen intereseko” deklaratu dezan “Traperos de Emaús” Fundazioa hondakinak berrerabilerarako prestatze aldera Berriozarren sustatzen ari den proiektua, eta han egiten diren inbertsioen portzentaje bat finantza dezan, kontuan hartuta inbertsio horrek gizarte, ingurumen nahiz ekonomiaren arloetan egiten duen mesede garrantzitsua, lanpostu kopuru handi bat sortzea aurreikusten baita”

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimen berriak ebalua eta, ondoren, proposa ditzan, ekitaldi instituzionalei dagokienez, oro har, eta zehazki, Nafarroaren Eguna dela-eta programatutakoek dagokienez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekimen berriak ebalua eta, ondoren, proposa ditzan, ekitaldi instituzionalei dagokienez, oro har, eta zehazki, Nafarroaren Eguna dela-eta programatutakoek dagokienez”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren Egunaren karietara programatutako ekitaldiak eta erabilitako irizpideak ebalua ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programazio hori berrazter dezan, ezarritako helburuak lortze aldera: Foru Komunitatea –bertan jaio edo kanpotik etorrira–

osatzen dugun guztion adostasuna, elkartasuna eta senidetatasun-kontzientzia sendotzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du interes bereziko bi kolektibo izan ditzan bereziki kontuan ospakizunetan: eskola-ikasleak, Komunitatearen etorkizun hurbila osatzen baitute, eta kolektibo bereziki ahulen bizi baldintzak hobetzeko lan egiten duten erakundeak eta/edo pertsonak, praktikatu eta ospatu beharreko elkartasunaren eta gizalegezko dohain hobere- nen adibide baitira.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du denek partekatutako irizpideen arabera ekitaldi programa bat taxu dezan: austeritate ekonomikoa, herritarren parte- hartzea, aniztasun politikoa eta kultur eta hizkun- tza aniztasuna”

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere gain behar besteko aurrekontu-konpromisoa har dezan, Nafarroako irakaskuntza unibertsitarioko eta ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoei beren eginkizunak garatzeko behar dituzten baliabideak emate aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain behar besteko aurrekontu-konpromisoa har dezan, Nafarroako irakaskuntza unibertsitarioko eta ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoei beren eginkizunak garatzeko behar dituzten baliabideak emate aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gain behar besteko aurrekontu-konpromisoa har dezan, Nafarroako irakaskuntza unibertsitarioko eta ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoei emate aldera beren eginkizunak garatzeko behar dituzten baliabideak. Honakoak dira eginkizun horiek: eskola adineko populazio osoarentzat legeak nahitaezkozat ezartzen dituen hezkuntza edukiak transmiti daitezen ziurtatzea; ikasleei oinarrizko prestakuntza integrala ematea, goi mailako ikasketekin jarrai dezaten, gizarteratzeko eta laneratzeko; etorkizunean gure gizartearen garapen zientifiko eta teknologikorako ekarpena egin dezaten derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntza-mailetan prestakuntza

zientifikoa eta humanistikoa ematea; eta herritar guztiek aukera berdintasuna izan dezatela jakintza eskuratzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du exijitu, gainbegiratu eta ziurta dezan Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatu itunduek baldintza teknikoak, curriculum-baldintzak eta ikasleak onartzeko baldintzak betetzen dituztela, eta ez dituztela ikasleak nahiz irakasleak inolaz ere baztertzen jaioleku, jatorri, bizitoki, sexu, erlijio edo beste edozein arrazoirengatik.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskolatzeara egokitu dezan, eskolatzeara erantsuta sustatze aldera, lehenetsia emanez irakaskuntza ez-unibertsitarioko mailako ikasleen eskolatzeari, familiaren bizitokitik hurbilen dagoen ikastetxe publiko bateko postu publiko batean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakaskuntza zentroen sare publikoari eman diezazkion eskariari erantzuteko adina azpiegitura eta eskola postu publiko, eta eskaintza familiek aukeratutako hizkuntza-ereduen arabera egokitu dezan”.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Drogamenpekotasunen II. Foru Plana.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

2013ko otsailaren 7an, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Drogamenpekotasunen II. Foru Plana onetsi zuen –plan hori 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, eta plan horri Nafarroako Parlamentuaren web orrian, helbide honetan, kontsulta daitezkeen proposamenak gehitu zitzaizki-

on: <http://www.parlamentodenavarra.es/inicio/publicaciones/documentos.aspx>

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut erabaki hau argitarara dadin.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera
